

TOKIKOM

# karkara

**Orioko eta Aiako aldizkaria**  
2011ko ekainaren 3a  
300. zenbakia. 23. urtea



## Fraisoroko egiak ilunetik argira

Zizurkilgo umezurztegiaren inguruko ikerlan sakona egin du Eva Garciak eta emaitza 'Fraisoroko amak, Fraisoroko haurrak' liburuan eman du argitara

**05**

**Herriko kontuak**  
Hauteskundeak

**09**

**Kirolak**  
Jon Azkue

**11**

**Aiako berri**  
EAJ garaile

**22**

**Kritika**  
Glosadoreak

RESTAURANTO **Seaga** BARRIOA

Santora

943 83 22 29

**azkue** **karrozeria**

Ubegun Industrialdea, 7 20809 Aia-Orio

T/fax: 943 83 51 86 Camceriasazkue@hotmail.com

**3B**

INFORMATIKA-ZERBITZUAK

680 997 600

lsb@informatika3b.com

tf/fax: 943 536 505

www.informatika3b.com

Joan Barbany

Abeslari kalea 4, 20810 Orio (Gipuzkoa)

**RAMIRO**  
argazkiak

www.fotoramiro.com  
fotoramiro@fotoramiro.com

610 69 76 68  
943 83 10 48

**TANATORIO ZARAUTZ**

EUROFUNERARIAS TALDEA

Hileta eta zerbitzu orokorrak

- \* Donostia eta probintziako ospitaleetan
- \* Aldiaroko zerbitzuak
- \* Belatorio gelak
- \* Koroiak, eskulak, trumitazioak...

Araba kalea, 35 Zarautz

Tel: 943 89 84 17 / Fax: 943 89 48 48  
e-mail: harraspil@harraspil.net

943 83 09 86

**KOASTA**

Wifi zerbitzua

Kopak, gau giro aparta...

**estilo berria**

Ogitartokoak  
T'plater konbinatuak  
Etxeko janaria  
T'ntxoak

943 13 13 12

Aitor eta Gorka

**Zaragueta**  
Eskola **ORTO**

telefonoa: 943 89 40 51  
e-mail: 012137aak@ezkuntza.net

telefonoa: 943 89 00 69

Bilobiz kalea, 4 20800 ZARAUTZ

**URBIDE**

ITURGINTZA, BEROGINTZA  
GASA\_BAINU ERAKUSKETA

**Sagasti**  
LEIHOAK

ROBERTO SAGASTI

T/fax: 943 13 00 77  
sagastileihoak@telefonica.net  
Arrantzale kalea, 68  
20810 Orio (Gipuzkoa)

**URANGA**

burdindegia

Opari, menaje eta erremakak

feruranga@euskalnet.net

Telefonoa: 943 8312 36 Euzko Gudari, 1

FISIOTERAPIA: Gorkate Añegui eta Neketa Añegoren  
NUTRIZIONISTA: Gorkete Añeguri

**sinergia** investigacion fisioterapia

ibai ondo, 1, behe-oina | ORIO | 943 13 05 77 - 685 71 85 95

**SOLOZABAL**  
autoeskola

Euzko Gudari, 30-1. ork  
telefonoa: 943 83 08 12

Sukalde eta bainuen erreformak

**XANTI MUJIKA**

**Igeltseritza**

699 46 76 21  
943 13 10 37

**TAILER MEKANIKOA**  
**MANTEROLA S/L**

TRONKOKAK - BAJEOKAK

3antiego ezuzoa - 18 postokuboa  
Tel. 943 830 743  
Fax. 943 134 634  
E-mail: hmanterola@euskalnet.net  
20 810 ORIO - GIPUZKOA

**TMM**

AENOR **R** **ISO 9000**

Esletako balbula  
AENOR kalitate ziurtagiriduna

## 300. Karkara

**1**

Bada kale bat Aian, Orion zeini nortasun handia darion jende ugari dabil bertatik eta denok dakigu zergatik... Zein ote? Hara! Denon etxetan dagoena da: Hirurehun leiho ditun KARKARA.

**2**

Jon Sarasuan portada hura orain nahiko urruti geratu da... Aspaldikoa, txuri-beltz-grisa... bizia Ibonen striptisa! Zenbat sorpresa! Zenbat kritika ta zenbat kexa! Denen gustua ez da errega.

**3**

Hirurehun leiho, hirurehun ale zeozer martxan dabilen seinale, ez bat, ez bi, ez hiru... hirurehun! Hauxe mila koloretako ehun bi herri janzten... hain nekeza izan zenak hasten jarrai dezala gutaz idazten!

# 300

## karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

**Kultur etxea**  
20810 Orio  
943 83 15 27  
karkara@karkara.com

### Editorea

Karkara taldea  
kultur elkarte

### Zuzendaria

Ana G. de Txabarri

### Erredakzio burua

Irati Agirreazaldegi

### Erredakzio taldea

Pat Cowie,  
Miren Etxeberria,  
Iker Gurrutxaga, Eli Lasa  
eta Jabier Zabaleta

### Publizitatea

Pat Cowie

### Publizitatearen diseinua

Lore Berasaluze

### Festa-programaren diseinua

Saioa Perona

### Testuen zuzenketa

Miren Etxeberria eta  
Jabier Zabaleta

### Ale honetako laguntzaileak

Iñaki Gurrutxaga,  
Jon Makazaga,  
Unai Manterola,  
Cristian Sanchez  
eta Leire Zinkunegi

### Laguntzaileak

Jokin Salsamendi

### Diseinua

Karkara taldea

### Banatzaileak

Ander Beldarrain eta  
Ane Murillo (Orioko)  
Eli Irureta (Aia)

### Inprimategia

Gertu Koop. E. (Oñati)  
Lege gordailua SS-346/90  
ISSN 1132-1105  
Tirada 3200 ale

KARKARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota iritzien erantzukizunik. KARKARAN argitaratutakoa berreman daiteke, osorik edo zatika, baldin eta iturria aipatzen bada.



KARKARA

### PUBLIZITATE PREZIOAK

#### Iragarkia alero jarrita

Modulu bat	12,00 €
Bi modulu	24,00 €
Hiru modulu	36,00 €
Lau modulu	48,00 €
Sei modulu	72,00 €
Zortzi modulu	96,00 €
Orrialde erdia	120,00 €
Orrialde osoa	204,00 €

#### Iragarkia behin jarrita

Modulu bat	16,00 €
Bi modulu	31,00 €
Hiru modulu	47,00 €
Lau modulu	64,00 €
Sei modulu	95,00 €
Zortzi modulu	127,00 €
Orrialde erdia	174,00 €
Orrialde osoa	306,00 €

#### Publizitatea kontratatzeko Pat

**Cowierekin hitz egin**  
(695 78 07 20) edo  
publizitatea@karkara.com  
Prezio hauei BEZa gehituko zaie

### LAGUNTZAILEAK



EUSKO JAURLARITZA

Kultura Sailak  
diruz lagundutako  
hedabidea

## Balearen Eguna

Eskerrik beroena eman nahi dizuet Balearen Egunean herri-antzerkia prestatzen, era batera edo bestera, lagundu duzuen herritarrei. Bereziki, uretan beharrezko guztia prestatzen aritu zaretenoi: balea konpondu, tresnak eta ontziak prestatu... eta arrantzale-arraunlariei. Berdin lehorrean beste hainbeste egin duzuenoi eta baita abesbatza, saregile, dantzari, trikitalari, txistulari, txalapartari, antzezlarri, eskola eta ikastolako gaztetxo, haur, guraso eta irakasleei ere. Egun txepel samarra argitu bazuen ere, guztion nahi eta ahaleginez, gainditu genituen arazoak. Bost urte barru hobetu dugu emaitza!

Bestalde, buelta asko eman ondoren, badut zerbait esateko Balearen Eguneko egitarau bikoitzari buruz. Pena handia sentitu nuen jakin nuenean, eta eskertzen dut Balearen Eguneko herri-antzerkia guztiok errespetatu izana. Sentitzen dudana, ordea, harago doa. Behin eta berriz, eta milaka aldiz, sentitu dudana zerbait harrotu baita nire buru eta bihotzean. Urteak joan eta etorri, gure herrian, Euskal Herrian, beti horrela gabilta. Elkarrekin liskarrean eta mokoka hazi eta hezi diren senideen antzera. Ez dakigu diferentzia bideratzen eta kudeatzen. Eta ez dakit ikasi nahi dugun ere. Tira-bira horietan galdu dugun eta galtzen ari garen denbora sekula ezingo dugu errekuperatu. Egun bateko festa egitaraua elkarrekin adosteko gauza ez bagara, nola eraikiko dugu herri honen etorkizuna? Nola adostuko ditugu guxtieneko politikak eta baldintzak, gure kultura, hezkuntza, osasun zerbitzuak, zientzia eta abar aurrera ateratzeko?

Behin baino gehiagotan pentsatu izan dut euskaldunok ez daukagula erremediorik. Baina ez dut hori pentsatu nahi. Eta horregatik jarraituko dut lanean, alferrik galtzen dugun denbora eta energia hori guztia beharrezko tokian kokatzen ahaleginduz.

Bukatzeke, inork ez dezala pentsa kritikatzeko hau inoren kontra doanik. Ez baita horrela. Guztiok gaude dinamika horretan trabatuak, baita neu ere. Puskatzea guztion eginkizuna da.

Besarkada bat. ■ **Iñake Irastorza.**

## Dopatzea

Ez dut uste marka berri bat lortzeko dopatzea beharrezkoa denik; frogatuta baitago galarazitako substantziarik hartu gabe, badagoela lehendik jarrita zeuden markak hobetzea.

Jakina, horretarako, denbora eduki behar da eta ahal den gehiena saiatu behar da, prestakuntzan aurrera egiteko. Ez izan presarik domina edo banderaren bat lehenbailehen lortzeko. Izan pazientzia.

Elikaduraren aldetik ere, zorrotzagoa izan behar da ahoratzen dugunak gure gorputza egokitzen lagundu diezagun.

Zer esanik ez, prestatzaile on bat ondoan izatea, eta sendagile baten kontrolpean egotea.

Bi horien esanetara jarrita eta gure borondate osoa jarritz gero, sekulako hobekuntza lor dezakegu, lehendik zegoen edozein marka gainditzeko. Hobetzeko, alegia. Beraz... ■ **Eukeni Santamaria.**

## Aian ere asko 'Bildu' gara

Aiako Bildu koaliziotik, lehenik eta behin, eskerrak eman nahi dizkiegu maiatzaren 20an Bilduren aldeko poteoan eta bertso afarian parte hartu zuten guztiei. Festa giro ederra sortu zen eta zoragarria izan zen horrenbeste jenderen babesa jasotzea. Mila esker.

Bestetik, maiatzaren 22ko hauteskundeetan gurekin biltzeko borondatea erakutsitako aiar guztiei ere eskerrik beroena eta besarkada handi bana bidaltzen dizkiegu. Igandean gudan erakutsitako konfiantzak ilusioz eta gogoz bete gaitu, eta inoiz baino indartsuago gaude Aiaren eta aiarron alde lan egiteko. Bildu jasotako 463 boto horiek Aiako errealitatea ere aldatzen ari dela adierazten digute. Beraz, gure programan zehaztu bezala, Udalean herritarren parte hartzea bultzatzeko, herritarren informatzeko eta horien iritzia Udalean azaleratzeko konpromiso sendoa dugu. Aiarrak euren botoekin eskatutakoa egia bihurtzeko borrokatuko dugu.

Zorionak, Aia, eta eskerrik asko guztioi proiektu berri honi erakutsi diozuen babesagatik. ■ **Aiako Bildu.**

## Mikel Lizarralderen ekitaldiari buruz

Jakina da herrian Mikel Lizarralderen ekitaldiaren inguruan sortutako zala-parta eta, horregatik, Mandalara taldeak gaizki sentitu diren pertsonen barkamena eskatu nahi die.

Aurreko urteko ekitaldian gertatu zen bezala, arazorik nagusia aforo falta izan da aurrean ere, eta zaila da guztientzako lekua lortzea. Hala ere, beste 50 leku jartzeko ahalegina egin dugu eta, jakin ezazue, hurrengoan, pertsonako barkarik bi sarrera emango direla, denok

aukera gehiago izan dezagun.

Gure esperientzia falta barkatuko duzuelakoan eta akatsetatik denok dugun ikasteko aukera ulertuz, aurreko urtean bezala, hitzaldiaz gozatuko duzuelakoan, agur. ■ **Mandalara taldea.**

## Eskerrik asko!

Saharautzen eta Orioko Sahararen lagunen izenean, eskerrik beroena eman nahi dizkiegu Orioko herriari, Zaragueta Eskolari, Herri Ikastolari eta Udalarri, errefuxiatuen kanpamenduetarako elikagaien bilketaren deialdiari eman diotzen erantzunagatik.

Jaso dugunak gure aurreikuspenik onenak ere gainditu ditu eta oriotarren elkartasuna zinez eskertzekoa da.

Beste behin ere Orioko herri solidarioa dela argi utzi duzue, behar dutenei laguntzeko beti prest agertu zaretelako, baita gurekin, saharauiekin ere.

Eskerrik asko! *Xukran!* ■ **Orioko Sahararen lagunak.**

## Esker onez

Maiatzaren 22ko emaitzak ezagutu ondoren, balorazio positiboa egin dugu Orioko Bildukook. *Parte-hartzea bikaina izan da, eta hori oriotar guztiak zoriontzeko modukoa da. Herrian azken boladan jasotako laguntza eta babesa bozketan nabaritu da. Gudan konfiantza jarri dute eta arduratsu jokatu dugu, esan du Beñat Solaberrietak. Espero genuen boto kopurua jaso dugu eta orain, boto horiei erantzunez, lanari ekiteko ordua iritsi da. Horretarako, elkarlanean oinarrituriko lan dinamika sortu nahi dugu bai EAJrekin eta baita Orain herri plataformarekin ere. Bakoitzaren programako berdintasunetatik eraiki daitekeen udal berri bat dugu helburu. Koalizioak herrian egin duen diagnosiaren ondoren sortutako herri programa aplikatuko dela bermatu nahi dugu.*

Bilduren partez, eskerrak eman nahi dizkiegu kanpainen parte hartu duten boluntarioei, herri programa gauzatzeko parte-hartze mahaietan ideiak aportatu dituzten herri eragileei, babesa eskainiz kalean gurekin hizketan geratu direnei, telefono dei eta korreo elektronikoko animotsuak egin eta bidali dituztenei eta, nola ez, maiatzaren 22an gudan konfiantza jarritako guztiei.

Erronka berri baten aurrean gaude eta herriaren ordezkariak izango gara. Gobernuan edo oposizioan, herri guz-

# EAJk irabazi ditu maiatzaren 22ko udal eta foru hauteskundeak

Bildu koalizioa izan da bigarren indarra eta Orain plataformak bi ordezkari izango ditu Orioko udaletxean datorren agintaldian. Gainontzeko alderdiek ez dute ordezkariarik lortu.

Aipatzeko datua da parte hartzeak gora egin duela 2007ko hauteskundeekin alderatuta. Duela lau urtetik hona %8 jaitsi da abstentzioa, %26,08 raino, 3.992tik 2.951 lagunek bozkatu dute-eta.

1.268 botoekin EAJk irabazi ditu Orioko Udaleko hauteskundeak. Gauzak horrela, 6 zinegotzi izango ditu Jon Redondoren alderdiak. 411 boto gehiago eskuratu dituzte jeltzaleek 2007arekin alderatuta, eta portzentajearen %9 gehiago eskuratu du, %42,97.

Bigarren indarra izan da Bildu koalizioa. 1.038 boto jaso ditu Beñat Solaberrieta buru duen aukerak. 5 zinegotzi izango dituzte eta, alkatetza lortu nahi badute, Orain plataformaren babesa ezinbestekoa izango zaie. 2007an EA eta EAE-ANVk jasotako botoak batuta baino 147 gehiago dituzte, baina portzentajearen %0,06 jaitsi dira eta %35,17a lortu du Bilduk.

Orainek 395 boto eskuratu ditu. Herri plataformak botoen %13,39 jaso du eta bi zinegotzi izango ditu datorren agintaldian. Gainera, erabaki ia guztietan giltza izango dira; urrutira joan gabe, esaterako, alkatea izendatzeko.

PSE-EEK galdu egin du zuen ordezkari bakarra. 113 boto eskuratu ditu alderdi sozialistak, duela lau urte baino 64 gutxiago eta portzentajearen 3 puntu baino gehiago jaitsi da. PPK ere behera egin du nabarmen, 38 boto baino ez ditu lortu Antxon Ibargoienek, 2007an baino 22

## Alkatetza lortzeko negoziaketak martxan jarri dira dagoeneko. Hala ere, alderdiak ez dira oraindik ados jarri

gutxiago. Boto gutxien jaso duen alderdia Aralar izan da. 37 boto eskuratu ditu Igor Larrarteren zerrendak. Aurreko hauteskundeetan EBrekin koalizioan joan ziren eta 486 boto eskuratu zituzten. Kolpe gogorra jaso du, beraz, Aralarrek. Bukatzeko, 43 pertsonen boto zuria eman zuten.

Datuon argitan, ez dago garbi nor izango den Orioko hurrengo alkatea, aukera bat baino gehiago dago-eta.



Boto kontaketa arreta handiz egin zuten ikuskatzaileek. KARKARA

## Foru hauteskundeak

Zenbakiak dezente aldatzen dira, ordea, Udaletik Batzar Nagusietarako hauteskundeetara. EAJk lortu du hemen ere boto gehien, 1.271, Udalerako baino 3 gehiago. Baina Bilduk 110 boto gehiago eskuratu ditu Batzarretarako; portzentajearen ere 4 puntu gehiago izan da Udalekoekin alderatuta. Beste guztiek ere zenbakiak hobetu dituzte, hauteskunde horietan ez delako aurkeztu Orain, besteak beste. Horrela PSE-EEK 176, Aralarrek 116, PPK 58, Hamaikabatek 35, Ezker Batuak 18, Berdeak 16 eta *Por un mundo más justo* alderdiak 5 boto lortu dituzte. 53 boto zuri izan dira.

## Negoziaketa

Alkatetza lortzeko negoziaketak martxan daude dagoeneko. Hala ere, akordiorik ez da oraindik, eta hitz egiten jarraitzen dute. Dena dela, ez zaie denbora gehiegi geratzen, ekainaren 11n, larunbatarekin, osatu beharko dute-eta datozen lau urteetarako udalbatza; egun horretan bertan aukeratu beharko dute alkatea ere.

## Orion 'betikoak' garaile

IKER GURRUTXAGA  
KAZETARIA

**A**ldaketa garaia dela aldarrikatuz pasa ditu Oriok hauteskundeen aurreko egunak. Haize berriak hartuko zuela herria, usaindu zitekeela *betikoek* ez zutela irabaziko.

Atano III.a pilotalekuan nintzen emaitzak kaleratzen ari ziren bitartean. Zarautz, Azkoitia, Tolosa, Beasain, Donostia, Azpeitia... guztietan ematen ari zen aldaketa sakona. Orioko emaitzarik ez eskuartean eta herrira deitu nuen. *Betikoak* garaile. 1000 bototik gora jaso dizkiagu esaten zidan batek pozik. Baina EAJk ia 1.300 boto eta zinegotzi bat gehiago izanda, besteen zain geratu behar aldaketa emateko. 4 urte asko eta asko kexuka, baina Orion *betikoak* garaile.



2002ko argazkian Audra Almanaityte ikus daiteke ikasleak zuzentzen. KARKARA

# Kontzertu berezia emango du Musika Eskolak ekainaren 18an

25. urteurrena du aurtengoa Orioko Danbolin Musika Eskolak. Hori dela eta, kontzertu berezia emango du datorren ekainaren 18an, gaueko 22:00etan hasita, herriko talde askok lagunduta.

Kontzertu berezia izango da Danbolin musika eskolak emango duena ekainaren 18an, larunbata, gaueko 22:00etan. Musika Eskolako instrumentu taldeek –txistu taldea, trikitixa eta pandero taldea, soka taldea, esku-soinu taldea eta banda– abesti ezagunak joko dituzte, eta Musika Eskolan ikasle izandakoen laguntza izango dute jotzeko. Gainera, kantari izango dira musika eskolako ikasle txikienak, kantuko ikasleak, eta herriko 22 taldetako ordezkariak ere.

## Egitarau osatua

Baina 25. urteurrenaren ospakizunak ez dira hilaren 18ko kontzertu horretara mugatuko.

Aurreko egunetan ere izango dira Musika Eskolan emango diren entzunaldi bereziak; hemen zehaztuta programa: Ekainaren 16an, ostegunarekin, izango dira lehen hirurak. Arratsaldeko 17:30ean hasiko dira eta ordu erditxo iraungo dubakoitzak. Lehena, gitarrare-

na izango da eta, atzetik, flauta eta tronpeta etorriko dira, hurrenez hurren.

Hurrengo egunean, ekainaren 17an, ostiralean, 17:00etan biolontxelo entzunaldia izango da eta, atzetik, 18:30ean, ikastola aurreko plazan, dantza saioa eskainiko dute Danbolineko ikasleek.

Larunbateko kontzertua eta gero, astelehenean, ekainaren 20an, 4 entzunaldiz gozatzeko aukera izango dugu. 17:30ean hasita, perkusioa, txistua, pianoa eta esku-soinua joko dute ikasleek orduerdiko tarteetan.

Ospakizunekin amaitzeko, azken eguna ekainaren 21a izango da eta hiru entzunaldirekin bukatuko dute musika aste berezia. 17:00etan trikitixa eta panderoa joko dituzte, atzetik, 18:00etan, klarinetea eta saxoa, eta entzunaldien zikloa iluntzeko zazpiretan itxiko da kantuko ikasleen emanaldiarekin.

25 urte betetzeko modu berezia bilatu du Danbolin Musika eskolak, herritar guztiei bertako ateak parez pare irekita.

## LABUR

### Udaleko kontuak

#### Azken udalbatzarra

Ekainaren 8an egingo da agintaldi honetako azken udalbatzarra. Aurreko plenetako aktak onartuko dituzte eta motza izango da, beraz; eta zinegotzi askorentzat azkena izango da. Datorren agintaldian ez dira izango Joseba Goiburu, Karmele Belasko eta Leire Zinkunegi –Ezker Abertzalea–, Iñaki Garcia –Ezker Batua–, Iñaki Iturain –Aralar–, Jesus Rodriguez –PSE– eta Martxiel Genoba –EAJ–.

### Bertsolaritza

#### Esoain aurrera, Eizagirre zain

Gpuntuaren, Gipuzkoako Txapelketaren, lehen fasea bukatzeko bi saio baino falta ez direnean, Ibai Esoainek lortu du udazkeneko faserako txartela. Bi saiotan kantatu ostean, 605 puntu pilatu ditu eta momentuz 12. dago. Egoitz Eizagirrek 587,5 puntu ditu eta 22. da, atzetik 9 bertsolari ditu, une honetan sailkatuta leudekeen artean. 12 bertsolari baino ez dira falta kantatzeko asteburu honetan eta, itxura guztien arabera, Eizagirrek ere udazkeneko fasean egoteko aukera garbia du. Igandean jakingo dugu, beraz, sailkatzen den ala ez.

### Dantza

#### San Joan bezperarako deialdia

Urtero bezala, Harribil dantza taldeak San Joan Berde egunean emanaldia egingo du. Hori dela eta, egun horretan bertan, kalejiratxo bat egingo dute, eta atzetik ikastola aurreko plazan edo kiroldegian emanaldia, eguraldiaren arabera, gau berezi horretan sorgin giroa jartzeko asmotan. Horretarako, herritarren laguntza ezinbestekoa zaie Harribil dantza taldekoei eta LH2tik hasi eta oraindik dantzarako gogoz diren guztiei dei egiten die egun horretako festan parte hartzera. Aldez aurretik entseguak eta egingo dituzte, eta lehen hitzordua ekainaren 6an, astelehenean, izango da arratsaldeko 19:00etan, Kosta Tailerrian.

### Sanpedroak

#### Danborradako entseguak

Herriko elkarte gastronomikoek antolatuko dute aurtengo sanpedroetako danborrada. Hala ere, herritar guztiei irekia izango da bertan parte hartzea. Tanborradan atabalak astindu nahi dituzten guztiek kultur etxean eman dezakete izena dagoenerako, eta entseguak, hilaren 7an hasita, iluntzeko 20:00etan izango dira ikastolako pergolan.



Gaztetxoekin lan handia egiten ari dira herriko ikastetxeetan Askagintzakoak. KARKARA

# Orion martxan jarritako planaren berri eman du Askagintzak

2006an jarri zuen indarrean Askagintzak, 5 urterako, Orioko plana. Aurten, 2011ko apirilaren 7an, talde guztietako kideekin bildu eta ondorioak idatzi zituzten, gero herriari jakitera emateko.

11 urte daramatza Askagintzak Orioko Udaleko gizarte zerbitzuekin elkarlanean. 2000. urtean hasi ziren Orion drogen kontua zertan zen aztertzen, baina lehen ikerketak ez zuen fruiturik eman, Askagintzak dioenez: ikerketa gizarte zerbitzuetan aurkeztu eta bere horretan geratu zen.

4 urte beranduago, 2004an, ikerketa herritarren ekarpenekin berri zuten eta 2006an bosturteko plana aurkeztu zuen Askagintzak *Droga-menpekotasunei aurre hartzeko Orio herri plana*. Behin plana eginda, apirilaren 7an lau taldetako kideak bildu ziren ondorioak ateratzeko. Hauek izan ziren protagonistak: hezkuntza eremuko profesionalak, gazteak, gurasoak eta gizarte eragileak.

## Ondorioak eta neurriak

Multzoka aurkeztu ditu ondorioak Askagintza elkarteak. Hezkuntzari dago-kionez, bi azpitaldetan banatu dituzte herriko ikasleak: DBHn daudenak eta

LH 6tik beherakoak. Bi multzo horietan ikusi dute, drogaz gain, badirela zaindu beharreko beste adikzio batzuk ere, hala nola, internet edo bideojokoak. Menpekotasunen arriskuari aurrea hartzeko, lanean jarraituko dute bi ikastetxeetan, eta baita heziketa sexu-afektiboan ere. DBHkoekin, osasun heziketa eta droga-menpekotasunaren prebentziorako programarekin aurrera jarraituko du Askagintzak.

## ZENBAKIA

# 4

Multzotan aztertu dute herria Askagintzakoek, ikuspuntu ezberdinak lortzeko. Horrela, bi ikastetxeekin jardun dute, batetik, eta gazteekin ere aritu dira lanean; bestalde, gurasoekin hainbat topaketa egin dituzte, eta herriko eragileekin ere eskutik hartuta egin dute lan ikerketan zehar.

Familia eremua da bigarren multzoa, eta bertan garrantzi handia eman diote egiten diren guraso topaketei. Horrez gain, herrian dagoen babes-sarea erakutsi nahi diete gurasoei, edozein herritarrek drogekin arazoak, kezkak edo zalantzak izanez gero, Askagintzarekin edo Orioko gizarte zerbitzuekin harremanetan jartzeko aukera dutela ohartarazteko.

Hirugarren taldea, gazteena, aztertze-ko garaian, ekintzak berekin antolatzeak duen garrantziaz ohartu dira ikerketa egin dutenak. Beren eremuetarajo beharra dagoela adierazi dute, horrela, prebentzio lana hobeto egiteko aukera dagoela ulertuta. Bestalde, gazteen kezkak argitzeko postontzi bat jartzeko ideia ere plazaratu dute, erantzunak e-postaz emateko aukerarekin.

Azken taldeari, komunitateari –herriko eragileei, alegia– dago-kionez, funtsezkoa den lana egiten dutela dio Askagintzak, baina arlo gehiago ordezkatzeko komeni dela ere nabarmendu dute. Egiten duten lana ezagutaraztea ere badela eta horretarako, besteak beste, sentsibilizazio kanpainekin aurrera jarraitu nahi du Askagintzak Orion.

# Eguzki OBB Sofboleko Espainiako txapeldun junior kategorian

Partida guztiak irabazita izan da txapeldun etxean. Gainera, Eguzki OBBko Ane Barandiaranek eta Aurora Makazagak jaurtitzaille onenaren eta jokalaria onenaren sariak jaso dituzte.

Orion jokatu zen maiatzaren 20tik 22ra Espainiako junior kategoriako Sofbol txapelketa eta Eguzki OBB, Orioko taldea, txapelduna izan zen etxean, partida bat bera ere galdu gabe.

Ostiraleko bi norgehiagokak irabazi egin zituzten 10-0 biak. Larunbatean, urduritasuna medio, pixka bat gehiago kostata, baina Atletico San Sebastian talde donostiarraren aurka irabazi egin zu-

ten 5-3 eta Projecte taldearen kontra 8-3 nagusitu ziren. Igandean, Dridma taldearen aurka jokatu zuten finala eta ia partida osoan 1-0 joan ziren arren, azkenean, OBBko bateatzaile bizkorak atera eta 8-1 irabazi zuten partida. Joko txukuna erakutsi zuten oriotarrek txapelketan, defentsan oso sendo eta behar zenean ondo bateatuz. Gainera, taldeko Ane Barandiaranek jaurtitzaille onenaren sa-

ria jaso zuen eta jokalaria onenarena Aurora Makazagak. OBBren atzetik horrela geratu zen sailkapena: Dridma Rivas Ciudad del Deporte; Krafft-Atletico San Sebastian; Projecte S. Gavanenc; CBS Antorcha-CEU; eta C.S. Viladecans.

Eguzki OBB taldea oso fin dabil azkenaldian. Kadeteak Espainiako txapeldu-norde izan dira eta seniorrak, liga bukatzeko 3 jardunaldi falta direnean, bigarren dira sailkapenean. Lehen lauen artean sailkatuz gero Erreginaren Kopa jokatuko dute uztailean, eta Europako txapelketan izango dira OBBko sofbolariak Bulgarian abuztuaren.



Orioko *pitchera* jaurtitzear bertan bildu ziren ikusleen begiradapean. KARKARA

## LABUR

### Arrauna

#### Edorta de Anta 8. Munichen

Orio AEko Edorta De Anta arraunlaria Munduko arraunketa egokituko txapelketan izan da Espainiako selekzioarekin Munichen eta 8. izan da. Final aurrekoetan laugarren izan zen eta ozta-ozta ez zen A finalerako sailkatu (1-6 postuetarako lehia). B finalean (7-12 postuak) bigarren izan zen. Azpimarratzekoa da final guztiak kontuan hartuta berea izan zela 4. denborarik onena.

### Harrijasotzea

#### Harri txikien txapelketan gustura

Maiatzaren 28an jokatu zen Urnietan Gipuzkoako harri txikien txapelketa. Harrijasotzaileek hiru harrirekin egin zituzten saioak: 125 kiloko zilindro berria, 112,5 kiloko kubikoa, eta 100 kiloko bola. Harri bakoitzarekin 3 minutuz aritu ziren. Unai Lertxundi aiarra laugarren izan zen 6.900 kilo altxata eta Aimar Galarraga oriotarra bosgarren 4.437,5 kilo bizkarrean berdinduta. Biak gustura geratu ziren egindako lanarekin, nahiz eta txapeldun izan zen Aimar Irigoien errezildarra -9.050 kilorrun izan.

### Squasha

#### Iñigo Agirre Zarautzen nagusi

Larunbatean jokatu zen Zarauzko kiroldegian squash ligako laugarren txapelketa. Txapelketako hirugarren eta laugarren postuak erabakitzeko partidaren ondoren, final nagusia jokatu zuen Iñigo Agirre oriotarrak Aitor Adrian getariarraren kontra. Iñigo Agirrek 3-0 irabazi zuen finala (11-8; 11-7; eta 11-7 tanteoarekin). Partida gogorra izan zen eta oso tanto politak ikusteko aukera egon zen norgehiagokan. Hau da Iñigo Agirrek Zarauzko txapelketan jarraian irabazi duen laugarren txapela.



# “Ez da erraza bi metro eta 120 kiloko jokalarien artetik pasatzea”

## Jon Azkue

Eskubaloï jokalaria

Ez da samurra izaten eliteko kirolari izateko bidea. Eta eskubaloian hain urrun iristea asko kostatzen da, nahiz eta herrian kasuak izan ditugun. Baina 16 urte baino ez eta ASOBALen debutatu duen oriotarrik gazteena da Jon Azkue.

### IKER GURRUTXAGA

Orion jaio, Santion bizi, Errenteriara joan eta Oriora bueltan. Herrian bertan hasi zen eskubaloian jokatzeko eta urte batzuk badaramatza Eibarko Arraten, nahiz eta 16 urte baino ez dituen.

#### 16 urte eta ASOBALen debuta. Nola sartu zitaizun aukera hori?

Oso handia izan zen. Sekulako sorpresa.

Urtarrilean nire taldearekin entrenatzen ari nintzela, lehen taldeko entrentzailea etorri zen eta ea lehen taldearekin joateko moduan nintzen edo nahi nuen galdetu zidan. Baiezkoa eman, eta San Antonioren aurkako lagunartekoa jokatzera joan nintzen Iruñera hurrengo egunean.

Apirilean etorri zen notizia garrantzitsuena. Bukaerako fasea prestatzen ari ginela, entrenatzailea etorri eta egoera

azaldu zidan, eta lehen taldearekin fitxa egingo zidatela esan zidan. Zur eta lur geratu nintzen.

#### Beraz, jubenilen taldea utzi eta lehen taldean zabilta.

Azken hilabete honetan entrenatu eta jokatu, biak lehen taldearekin egin ditut denbora guztian.

#### Eta nahi beste jokatu al duzu?

Lehenengo neurketan, aulkian izan nintzen partida guztian. Bigarrenetan 20-30 minutu jokatu nituen eta, orduz geroztik, 40 minutu inguru jokatu ditut azken bi partidetan. Ez dakit ez ote den gehiegi...

#### Duela lau-bost urtetik hona alde handia izango da, ezta?

Sekulakoa. Duela lau-pabost urte herri-tik apenas mugitzen ginen kanpoko partidetara. Atzera eta aurrera korrika jar-

dun eta gutxi gehiago. Nahiz eta gogortasunera ohituta ginen ordurako. Baina orain izan ditudan arerioak animalia hutsak dira!

#### Hori da. Fisikoki alde handia izango da haien eta zure artean ala?

Ni haien aldamenen txikia naiz. Haien bi metro luze dira eta 120 kilo dituzte, ni 1'84koa naiz eta kilo gutxi haien aldean. Guza da haien artetik pasa behar dela goli-ekin nahi bada.

#### Zein postutan jokatzeko duzu lehen taldean?

Hasiera batean, hegalean eta erdiko jokalaritza aritzen nintzen, baina taldeko izkinako jokalaritza batek min hartu eta haren postuan ere jokatzeko dut orain. Aulkian hasten ditut partidak, izkinako jokalaritza aldatuz sartzen naiz, eta, amaierarako hegalean bukatzen dut azken partidatan.

#### “Lehen egiten genuena atzera eta aurrera korrika jardun eta, gutxi gehiago. Nahiz eta gogortasunera ohituta ginen ordurako. Baina orain izan ditudan arerioak animalia hutsak dira!”

“40 minutu inguru jokatu ditut azken bi partidetan. Ez dakit ez ote den gehiegi...”

#### Gainera, zu begira ibili zaren horiek izateak parez-pare, zer pentsatua emango dizu, noski.

Telebistan ikustetik haien artean egotera egun batetik bestera, izugarria da. Gainera, lehen partida Guadalajaran ez nuen jokatu, eta debuta telebistan eman zuten. San Antonioren aurka Arraten. Ez nekien non sartu.

#### Nahiz eta fisikoki diferentziak nabarmentzen izan, gustura al zaude zeure buruarekin?

Bai, bai. Oso gustura nago, alde nabarmena da, baina konfiantza dut nire buruarekin eta hori da garrantzitsuena. Haien artean badakit ez dudala sekulakorik egingo, baina ahal dudana guztia ematen dut.

#### Datorren denboraldian ere Arraten?

Bai, baina oraindik ez dakit, bigarren taldean ala lehenengoan, non izango naizen, jubenila izan arren. Udan gogor prestatu beharko naiz datorren denboraldirako.



Jon Azkuek ASOBAL ligan sartu zuen lehen goleko momentua. DV



KARKARA

## “Esneari irtenbidea eman ezin geniolako egin dugu gazta”

### Zorione Iruretagoiena Rezabal

Baserritarra

Behiez arduratzen zela bagenekien, baina aurten gazta saltzen ikusita, zer dela eta galdetu nahian Zorionerekin elkartu gara, Andoni anaiarekin batera duen proiektuetaz hitz egiteko.

#### PATCOWIE

##### Zer dela eta orain gazta egiten?

Ardi esnea asko saltzen genuen lehen; baina joan den neguan saldu ezinean gelditu ginen, krisiaren ondorioz gaztagilek ekoiztutakoa oraindik saldu gabe zegoelako. Irtenbide bat bilatu beharrak ekarri gaitu hona, nahiz eta Andoni anaiak eta biok hemendik 2-3 urtera gazta egiteko asmoa bagenuen. Idiazabalgo erregistroan sartu gara, eta lehen gure esnea erosten zuenak oraingoan gazta

egin digu, *Maintzelai* izenarekin. Ondo saltzen ari da Zarauzko Bakaileron eta Juantxon, Orioko Dian, Donostiako Lukasen eta etxetik bertatik. Nekazal turismo bisitariak dezente eramaten dute, eta Aiako bi azokatan jarri dut salgai. Akaso, artisautzen azoketara joaten hasiko naiz, udan lan gutxiago izaten baita ardiekin eta anaiak ordezkatuko nau behiakin zaintzeko.

##### Une zailean hasi zarete saltzen, ezta?

Gure asmoa zenesnea ez botatzea; beraz, prezioarekin jokatu dugu salmentari be-

gira eta badirudi erabaki egokia izan dela. Hiru neurritan egiten ditugu gaztak, 700-800 gramokoa, kilotik gorakoa eta, ferietan gehien saltzen dena, hiru kilokoa. Gutxiago lehortzen delako edo ikusgarria delako izango da, akaso.

**“Behiek eta ardiek ordutegi diferenteak dituztenez, elkarri laguntzen diogu. Bulegoko ordutegirik ez dugu”**

“1.800 metro koadroko pabilioia egiten hasi gara ditugun milatik gorako ardi entzatzat. Hori lortuta, gaztandegia egingo dugu”

##### Asmoa egia bihurtu da, beraz.

Bai, 1.800 metro koadroko pabilioia egiten hasi gara ditugun milatik gorako ardi entzatzat. Hori lortuta, gaztandegia egingo dugu. Anaiak aitarengandik jaso zuen artalde handi bat izateko gogoia. Orain dela 9 bat urte 200 buru bagenituen, orain milabaino gehiago dira, genetikoki kontrolatuak; beraz, behar adina esne izango dugu. *GazteNE* programari esker eramango dugu aurrera, baserritar gazteen proiektuak bultzatzen baititu. Eta ardi zaintzaren gaineko ikastaro trinkoa egin dugu biok: manejoa, ile mozketa, lurra, belarra, gazta...

##### Ardiez arduratuko zara zuk?

Ni beti behiekin aritu naiz, baina bi zaintza motek ordutegi diferenteak dituztenez, beti laguntzen diogu elkarri. 6etatik 9etara bitartean aritzen gara behiekin; beraz, pare bat ordu ditugu Andoniri eta mutilari laguntzeko, eta arratsaldean antzeko zerbait, hiru ordu eta erdi ematen baitute goizero eta arratsaldero 750-800 bat ardi jezten. Hemen ez dago bulegoko ordutegirik! Udan, bai, ardiak antzutzen direnean, lan gutxiago ematen dute. Gogorrena urria izaten da, 400-500 arkume jaiotzen baitira 4-6 astean. 100 arkume ere jaio ziren behin egun batean! Eta nahasten badira edo bat amarengandik urrundu, akabo! Aste horiek elkarrekin pasatzen ditugu lanean anaiak eta biok, gauean ere bi ordutik behin ardura hartzen, txandaka.

##### Eskerrak bertan dituzuen!

Bai, udan bakarrik ateratzen ditugu. Baina Etorlurrek proiektua du martxan Aiako 1.600 bat ardi Pagoetara eramateko. Hasi dira garbitzen, eta asmoa da itxiturak, mangala eta baltsa jartzea. Ardia zenbat eta gorago egon, gusturago egoten da, behean birikek gehiago sufritzen dute eta. Beraz, laster batzuk Pagoetara bidaliko ditugu oporretara!



Aiako eskolan sekula baino jende gehiagok izan zuen bozkatzeko aukera. KARKARA

## Igor Iturain izango da alkate datozen lau urteetan ere

Berriro ere Igor Iturain izan da hautagai bozkatuena Aian. EAJ alderdiak 11tik 6 zinegotzi izango ditu, eta oposizioan izango da Bildu, beste 5 zinegotziak haien esku geratu direlako.

Aian ere, beste hainbat lekutan bezala, parte hartzeak gora egin du nabarmen azken hauteskundeetan. %70ek eman zuen botoa, 1.533tik 1.069k alegia, eta Igor Iturainen EAJk gehiengo absolutuz irabazi, 564 botorekin (%52, 76ko portzentajea lortuta). Horrenbestez, 11tik 6 zinegotzi bereganatu ditu EAJk Aian. 2007an baino 3 boto gehiago lortu ditu Iturainek oraingoan, baina portzentuan %8 egin du behera Aiako alkateak.

463 lagunek eman zioten botoa Aritz Arruti Bilduko zerrendaburuari, %43,31. Duela lau urte EA eta EAE-ANVk 324 boto jaso zituzten, beraz, bai bototan eta baita portzentajearen ere nabarmen egin du gora Bilduk, 8 puntu igo baita jasotako boto kopuruaren batez bestekoa. PSE-EEk 12 boto lortu zituen

beren lehen agerraldian eta PPK 5, aurrekoan baino 2 gutxiago. 19 lagunek eman zuten boto zuria.

### Foru hauteskundeak

Batzar Nagusietarako hauteskundeetan zenbakiak ez dira Udal hauteskundeetako berdina izan, besteak beste, alderdi gehiago zeudelako hautatzeko.

Gauzak horrela, EAJk lortu ditu boto gehien, 494; Bildu izan da jarraian 450ekin, Aralarrek 59 boto eskuratu ditu, PSE-EEk 15, Ezker Batuak 8, Hamaikabat alderdiak beste 8, Berdeak 7 eta PPK 6. Sepia koloreko gutunazaletan 11 boto zuri zenbatu ziren.

EAJ eta Bilduk herrian baino boto gutxiago jaso dituzte, beraz, Batzar Nagusietarako; PSE eta PPK, aldiz, gehiago.

## LABUR

### Festa

#### Pagoeta eta Koadrila eguna

Ekainaren 5ean, igandearekin, egingo dute aurten Aian Pagoeta eta Koadrila eguna. Pagoetara irteera egingo dute 09:30ean herriko plazatik abiatuta eta bueltan bazkaria izango da 14:00etan. Lehen platera paella izango da denentzat eta hortik aurrerako koadrila baikoitzak eraman beharko du. Edaria, parrilla eta bazkaritarako tresnak antolatzailerik jarriko dituzte. Bazkalostean, jai giroarekin jarraitzeko, koadrilen arteko jolasak eta erromeria izango dira.

### Kirolak

#### Zarauz-Aia herri krosa

Ekainaren 12an lehiatuko da Zarauztik Aiara bitarteko herri krosa. 11:30ean Zarauzko Gipuzkoa kaletik abiatu eta 11,315 kilometroko ibilbidea eginda iritsiko dira korrikalariak. Lehenengo hiruek garai-kurra eta diru saria jasoko dute: 200 euro lehenak, 170 bigarrenak 150 hirugarrenak eta sari berezia ere izango da. Izena emateko aukera dago 4 euro ordainduta [www.herrikrossa.com](http://www.herrikrossa.com) helbidean edo egunean bertan irteeran 10etatik 11etara 10 euro ordainduz.

### Istripua Lokate inguruan

Aiako Igoera bukatu eta gero, istripua izan zen Lokateko bihurtetik Ubegun auzora doan bidean. 11 urteko haur bat bizikletan zihoan aita eta lagun bat alboan zituela, baina autoa entzun eta bizikletatik jaitsi ziren. Autoak hauraren bizikletaren gurpila harrapatu eta gazte txoak sekulako kolpea hartu zuen. Kolpearen ondorioz ospitaleko zaintza berezien unitatera eraman zuten.

## Herritarren begiradapean

**M**aiatza aldaketa hila izaten da askorentzat. Maiatza batean –orain sei urte– esan zidan Gotzainak Aia eta Orion izango nuela zetozen urteetako bizi-gunea. Eta maiatza batean esango dit hurrena nora joan behar dudana. Ez da, ordea, batzuen pozerako eta besteen penarako, aurtengo maiatzean niretzat aldaketarik suertatu. Hemen egoteko asmoa dut beste maiatza askotan.

Maiatza aldaketa hila izaten da udal-txeetan ere. Eta halaxe ariko dira Hego Euskal Herriko hainbeste tokitan batzuk asmo berriak agertzen eta beste batzuk maletak egiten. Aian, alkate bera izango dugu beste lau urtez. Proportzioak eta presentziak aldatu dira baina.

Apaiza eta alkatea, alkatea eta apaiza berak, Aian, horrenbestez.

*Hamaika agintari berri* esango du norbaitek. *Hamaika zerbitzari berri* erantzungo diot. Horiek herriak bere zerbitzurako hautatu dituenak direlako. Herriaren borondatea betetzeko. Herriaren beharrak asetzeko. Herriaren ongizatea bilatzeko. Baina... ai! agintari bilakatzen badira! Edo okerragoa oraindik: ai! euren alderdien zerbitzari bilakatzen badira!

Auskalo! Batzuk zein besteak herria-

***Ai! euren alderdien zerbitzari bilakatzen badira!***

ren begiradapean geratzen dira lau urte-tarako. Badakit herriaren begiradapean egotea zer den. Baina badakit begiratzen duen herritar izaten ere. Badakit, herritar guztiok jakin behar dugun bezala, herriko arduradunen lana eskertzeari utzi gabe haien lana lupaz begiratzen. Eta ekainaren 11n horri ekingo diot. Lupa errukitsuz baina. Laguntzeko prest, eskua zabalik... baina lupaz... Hori da herritarren egin-beharrak. Tristeza litzateke hurrengo hauteskundeak arte guztiaz ahaztea. Bai tristeza!

Zorterik onena hamaikerei. Bejondei-zuela. Zuen herria zerbitzatzea gauza bikaina da. Portzierto, Aiak asko kezkatzen banau ere nik ez nuen Aian bozkatu. Baina hau Aiako leihoa da. Eta Aiako leihuan Aiako kontuak.



**Txokoak eta jendea**  
Bideondoko  
iturria

Ez dugu ohiturarik horrelako irudiak atal honetan jartzeko, baina batzuetan merezi du. Bailarakoek zaindu dute beti Bideondoko iturria, baina denboraren poderioz utzia zegoen, ia desagertuta, belarren eta errepideko obren artean. Orain, ordea, Arrizabalaga anaiek txukun jarri dute antoxina eta guzti eta eskertzekoa da



# ARRAUNLARIEN KAMIOIA ZAITZEN

**A**rraunean denek batera egiten dute arraunlariek eta Ortzakako bizilagunak ere elkarrekin ibili ohi ziren askotan.

Argazkia ere denek batera atera zuten, Konpaxaneko atarian, egunkariaren baterako, arraunlariak batetik bestera eramaten zituen Erramun Indoren kamioiaren aurrean estropada batetik bueltan

Argazkirako zuzen-zuzen eta barrez-barrez jarri ziren Dolores Gaztañazpi, Ana Mari Kor-

ta, Joxe Mari Gaztañazpi, Bixente Gaztañazpi, Ixabel Oliden, Pilar Oliden, Kandi Oliden, Inazio Gaztañazpi, Joxe Oliden, Fernando Gaztañazpi, Bixentiko Korta, Antonita Oliden, Maite Gamuza, Terexa Lizarreta, Mertxe Oliden, Emilia Lizarreta, Beatriz Korta, Inazia Otaño, Mercedes Gozategi, Franziska Tolosa eta Josefina Gaztañazpi.

ARGAZKIA: INAZIO GAZTAÑAZPI INFOR.: A. OLIDEN

## karkara

Txoko honetan erakusteko moduko argazki zaharren bat baldin badaukazu, ekarri KARKARARA eta gustu handiz argitaratuko dugu, zuk ekarritakoa dela jarrita.

**PERTSIANAK**  
A K O M A Z  
Aluminio, PVC  
Venezianak  
Motorrak...  
Tel: 943 3329 01 Magikorta 600 70 52 27

argaztegia  
**MIRANDA**  
KORTA 10000  
Gelma eta leku eskutera...  
besta ilun antolatzen  
egun orokor  
Geltaketa bidea, 3-4600 42 82 704 BARAUTS

Orioko  
Ogi  
**ORIOGI**  
OPIL OKINDEGIA  
Frontal andoan  
Ifroa: 943 83 01 89

# “Oso gogorra zen ama ezkongabeen bazterketa”

**Eva Garcia**

*Fraisoroko amak, Fraisoroko haurrak* liburuaren egilea

Gipuzkoan abandonu egoeran zeuden haur espositoen eta ezkondu gabe haurdun gelditu ziren emakumeen aterpea zen Zizurkilgo Fraisoro etxea. Hango historia ***Fraisoroko amak, Fraisoroko haurrak*** liburuan jaso du Eva Garciak. Lanaren nondik norakoak eta ama-etxearen iluna argitu dizkigu.

**TESTUA: IRATI AGIRREAZALDEGI  
ARGAZKIAK: I. AGIRREAZALDEGI,  
KUTXA FOTOTEKA ETA MALENITURAIN**

Diseinu grafikoan aritzen da Eva Garcia; Aian bizi eta donostiarra da. Liburuak eta aldizkariak maketatzetik, ordea, oraingoan edukia egitera, idaztera, pasa da. Manuel Larramendi Kultur Bazkunaren beka deialdi baten bitartez, iker-

lan sakona egin du Zizurkilgo umezurztegiari buruz eta jasotako informazioa *Fraisoroko amak, Fraisoroko haurrak* liburuan eman du argitara.

Idazle izanda egin duen estreinako liburuak du Eva Garciak Fraisorori buruzkoa eta lan ordu asko eman dituen arren, eta gaia bitxia eta iluna bada ere, modu atseginean ematea lortu duenez, gustura dago.

**Nola animatu zinen lan hau egitera?**

Duela bost urte Amasa-Billabonako argazki zaharren liburuak egiten ari ginela, Fraisoroko argazkiak topatu genituen. Orduan izan nuen gai horren berri eta jakin-mina sortu zidan.

Gero, beka deialdi baterako informazio triptikoa egiteko eskatu zidaten eta ikusi nuen gaietako bat Fraisorokoa zela.



Horrela animatu nintzen eta liburu hau da ikerlanaren fruitua. Liburuetan parte hartu izan dut, baina beti alde grafikoan, eta orain beste alde probatu dut.

Ikerketaren proiektua aurkeztu nuen, ez nekien artxiboetan zer aurkituko nuen. Lehenengo zailtasuna artxiboetan miatzeko Aldundiak eman beharreko baimenak lortzea izan zen. Badira dokumentuak, aurkitzea espero nituen arren, ez daudenak: Fraisoroko amen espedienteak edo Espositoen Batzordeko bileretako aktak, adibidez.

#### **Zer zen Fraisoroko Sehaska-etxea?**

Fraisoro egoitza zen. Aldundiak eta Kutzak sortutakoa; Gipuzkoan zegoen haur abandonatuen arazoari erantzuna emateko tresna izan zena. 1923tik aurrera, eraikin horren ondoan Ama-etxe bat eraiki zuten, amaberri ezkongabeak haurdunaldiaren azken hilabeteak modu anonimoan eramateko sortua eta, erditutakoan, haurra erakundearen esku berme guztiarekin uzteko aukera eman ziena. Haur haiek, adopzio edota garai batean *prohijamendu* zeritzon harrrera formularen bidez, probintziako hainbat familien esku utzi ziren. Kontu horiek Gipuzkoako Espositoen Batzordeak diskrezio handiz kudeatzen zituen. Egoitzak, berriz, Karitateko Alabek.

#### **Liburuak hango historia jaso du?**

Aldundiak gai honen inguruan sortzen ziren kontuei zein erantzun ematen zien ikusten da liburuan. Fraisoro sortu aurretik Gipuzkoan haurren abandonuaren gaia nola zegoen azaltzen da. Horrez gain, gero espositoen arloaren antolakuntza, eraikinaren ezaugarriak, haurren edoskitzearekin zerikusia zuten hainbat gorabehera, bertako langile-riari buruzko informazioa... eta garrantzikoena: ama ezkongabeei eta han jaio edo entregatutako haurrei eskainitako kapitulu mardulak. Bi atal horien bukaran hainbat protagonistaren testigantzak ere irakur daitezke.

#### **Gaia nahiko ezezaguna da ezkutuan gorde izan direlako hango kontuak.**

Gaia nahiko ezezaguna da ezkutuan gorde izan direlako hango kontuak. Bai, batetik haurra erakundearen esku uzten zuten emakumeei anonimotasuna bermatzen zitzaielako eta haurren aitatasuna ikertzea debekatua zegoelako, hango kontuak oso-oso ondo gordeta egon dira. Bestetik, adopzioekin zerikusia zuen guztia ere nahiko gai ezkutua izan da. Pentsa 2005 urte arte, ez zitzaien haur adoptatuei beren jatorri biologikoa ezagutzeko eskubidea onartu!

Gai sentsible hauek direla eta, diskrezio osoz jokatu behar izan du Aldundiak eta agian horrek eman dio iluntasuna gaiari.

“Ikerlanaren proiektua aurkeztu nuen jakin gabe artxiboetan zer aurkituko nuen. Lehenengo zailtasuna artxiboetan miatzeko Aldundiak eman beharreko baimenak lortzea izan zen”

“Haurra erakundearen esku uzten zuten emakumeei anonimotasuna bermatzen zitzaielako eta haurren aitatasuna ikertzea debekatua zegoelako, hango kontuak oso-oso ondo gordeta egon dira”

“1944 urtetik aurrera, Espositoen Batzordeko Ikuskari Andres Izaskun hasi zen espedienteak ohar eta hizketaldien laburpenekin osatzen eta horrek izugarriko balioa izan du nire lanean”

“Esan behar dut, nik ere, hasieran, leku iluna irudikatzen nuela; marjinala, mojekin... Baina lana egin ahala jabetu nintzen bazterketa ez zegoela bertan baizik eta kanpoan: familietan eta gizarteetan”

“Emakumeek diote mojek errespetuz tratatzen zituztela nahiz eta berriz *akats* berean erortzen zirenekin gogorragoak izan”

“Gaiaren gizatasuna plazaratu nahi izan dut. Fraisoro aipatu hutsarekin txutxu-mutxu asko entzuten da, baina izen horren atzean dagoen egia kontatzen saiatu naiz”

#### **Lana egiteko trabak izan dituzu?**

Artxiboak miatzeko baimena lortu ondoren, topatu nuen oztopoetariko bat espedienteen hoztasuna izan zen. Dokumentu ofizialez osatuak ziren, protagonisten gizatasuna adieraziko zuen inolako aipamenik gabekoak; hain zuzen ere, nik bilatzen nuena. 1944 urtetik aurrera, ordea, oztopo hori gainditu zen Espositoen Batzordeko Ikuskari izendatu zuten Andres Izaskuni esker. Bera hasi baitzen espedienteak ohar eta hizketaldien laburpenekin osatzen. Xehetasun guztiak idatziz erregistratuta uzteko haren ez ohiko ohiturak izugarriko balioa izan du nire lanean. Horrez gain, espositoen eta beren amen alde egin zuen lana handia izan zen. Sentiberatasun handia zuen gaiarekiko; han abandonatutako umea izan baitzen.

Sentiberatasun hori soma daiteke liburuan, bereak baitira liburuan azaltzen diren gutunetako gehienak. Hainbat momentutan urteetan zehar espositoen arloan izandako bizipen eta sentimenduak adierazi zituen idatzietan, eta horiek ere liburuan jasota daude.

#### **Testigantzak ere baliatu dituzu.**

Amak bilatzea ez da erraza izan, baina hiru emakumeren eta hango haur izandako beste hiruren testigantzak daude. Hango haur izandakoek kontatzen dute nola eta zeinekin atera ziren handik eta gero, esposito bizitzan izandako esperientzia. Emakumeei, berriz, ez nien galdetu hara eramane zuten arrazoiari buruz, Fraisoron bizi izandakoari buruz baizik. Batzuek modu aberatsean egin dute kontaketa eta beste batzuek ez.

#### **Nolako gauzak kontatu dituzte?**

Distantsiatik ikusita, Fraisorori buruzko oroitzapen onak dituzte. Ongi zaintzen zituztela esaten zuten, eta lan egin behar bazuten ere ez zela horrenbesterako. Haurdun sartzen zirenean txikiak zaintzen zituzten eta norberarena zeterrenerako haurtzaintza eta dietetikako gauzak ikasi. Kontatzen dute bularra ematen ziotela norberarenari eta beste bati eta hirugarren bat zaintzen zutela; goardiak egiten zituztela; gerra ostean han ondo jaten zela... Diote Fraisorokoa aukera ona zela aprobetxatzen jakin zutenentzat; herri txiki batetik joan eta inork ez zituela epaitzen eta mojek ere errespetuz jokatzeko zutela, nahiz eta berriz *akats* berean erortzen zirenekin gogorragoak ziren. Etxean ez zuten babesa han aurkitu zuten eta gogorrena handik ateratakoan jasan zutela.

#### **Haur zirenek nola gogoratzen dute?**

Fraisoron haurrak 5 urtera arte egoten ziren, beraz, oroitzapenak oso eskasak dira. Gogoratzen dute noiz eta zein familiarekin atera ziren. Familiekin atera





ezean, Tolosako Erruki Etxera joan behar zuten, eta benefizentzia zentroa izanik, hango egoera gogorra zen; arloteak, adimen urrikoak zeuden.

Erruki Etxetik ateratzeko, adopzioan hartu edo morroi edo neskame lanetarako eskatzen zituzten. Batzuk familiekin haserretu eta itzultzen ziren, esposito izaera ez baitute sekula galdu, eta berriz hartu behar zituzten eta lagundu.

### **Lan honek argituko al du Fraisororen irudi iluna?**

Nik ere, hasieran, leku iluna irudikatzen nuen; leku handi bat, marjinala, mojekin... Baina lana egin ahalajabetu nintzen bazterketa ez zegoela bertan baizik eta kanpoan: familietan eta gizartean. Haurren abandonuak, kasu askotan, familiak inposatuak zirela, lotsaz eta zeresanen beldur. Erditutakoan, etxera bakarrik bueltatu behar zuten amaberriak onartuak izan nahi bazuten. Abandonurako aukera baztertzeko zutenek edota familiako errefusa jasaten zutenek ez zuten nora jo eta bertan gelditu ziren, inude moduan, esnea izan zuten bitartean, eta langile moduan gero, batzuk urte askotan.

1932an *Socorro a madres solteras* zeritzonean diru-laguntza indarrean jarri zen eta ondorioz, gero eta gehiago izan ziren erakundetik haurrarekin atera ziren amak. Orokorrean, erakundeak zituen giza baliabide nahiz errekurtsio ekonomikoak modu txukunean kudeatu zituen, ahalik eta abandonu egoera gehien sahiesteko eta ama ezkongabeak laguntzeko; noski, izaera erlijiosoa zuen esparru baten barruan. Garai haietan psikologiaren ezagutza hutsalak eraman zituen amen eskubideak lehenestera haurrenak gerorako ahaztuz.

### **Liburua gogorra da?**

Egoerak dira gogorrak. Badira pasarte batzuk, hainbat gutun edo testigantza, emozioa eragiten dutenak, batik bat istorioak direlako tristeak.

Hango elkarbizitza momentuko gizartearen araberakoa zen. Orokorrean lasaia, baina nortasun kezagarria zuten hainbatek zapuztu zezaketen giroa.

Aldundia, garai bakoitzean, arazoari ahalik eta erantzun egokiena ematen saiatu zen. Noski, ehun urtetan eta milaka haur eta emakume pasa direnean, denekin ongi asmatzea ezinezkoa da, baina, akatsak akats aukera ona izan zen baliatzeko ahalmena izan zutenentzat.

### **Beste ikerketa lanen bat egingo duzu?**

Gai interesgarriak aurkituz gero... Zer kontatua dagoenean, gaia gustukoa deanean eta artxiboetan gauza aberatsak badaude, gustura egiten da lan. Gai astun bat ez nuke landuko. Hau bukatu berri dut, eta gero gerokoak.

## **FRAISORO HAUR ETA AMEN AHOTIK**

**F**raisorok 1903an ireki zituen ateak eta mende bukaerara bitartean 3.800 ama inguru eta 14.000tik gora haur pasa ziren handik. Fraisoroko hainbat ama eta haurren testigantzak jaso ditu Eva Garcia eta honakoak liburuan irakur daitezkeen adibide baino ez dira.

Han izan zen ama batek gogoan du nola beren arteko harremana egokia zen, baina zenbaki baten itzalean bizi ziren: *Guk ez genekien besteen benetako izena. Zenbaki bat genuen eta horrela deitzen genion elkarri. Zurrumurruek baziren ere, inork ez zuen galdetzen haur bakoitzaren aitarengatik. Bakoitzak bere bekatuaren zama eramaten zuen, eta zurea kontatu nahi ez bazeu, ba, ez zenion beste bati horri buruz galdetzen.*

Fraisoroko haur batzuek badakite nongoak diren, ez, ordea, bere amak zergatik utzi zuen han. Baina bada gizon bat hartu zuen familiak ez tian hazi zuena: *Gu beti sentitu gara etxe-koak. Gaztetan baten bat etorri zen ni morroi eraman nahian, baina nire gurasoek ez zuten onartu. Nik beren ondoan segitu behar nuela sentiarazten zidaten. Orduan, ezin gintuzten legez adoptatu, seme-alabak zituztelako, baina gero ez dugu arazorik izan gure anai-arrebekin oinordetzaren partizioak egiterakoan, ezta zahartzaroen elkar zaintzeko orduan ere.*

Umezurtz baten seme, Fraisorotik semetzat hartu zuten etxean sekulakoak eta bi pasatakoa, baina bizitzak buelta asko ematen dituenaren erakusle garbia. Errukarri izatetik estimatua izatera pasa zenak zera kontatzen du: *Nik ere, orduan, ligatzeko aukera izan nuen, festetan-eta. Orduko emakume ezkongabe gazteak ez zuten inolako eskubiderik. Engainatzeko oso errazak ziren. Baina horrelakoetan nire ama eta nire historia zetorkidan burura eta oso garbi izan nuen ez nuela ezkondu aurretik emakume bat haurdun uzteko aukerarekin jokatu.*

Bihotz asko hunkituko dituzten horrelako pasarteak hainbat daude liburuan jasotakoak. Fraisororen lekuko, ama eta haurren akorduko.

# Joan da Balea

**M**aiatza pasa da eta iristear dugu udara. Olatuek gogor jo dute moila, itsasoa sartu da erriorean eta herriko arrokak mugitu ditu. Eraman du hondarra, txikitu da harria eta buztina pilatu zaigu matxoiaren kontra. Orain, ura jaitsi ondoren, kalteak ikusi beharko. Orain olatua gelditu duen barra ikusi beharko da, ze egoeran dagoen, eta pitzadurek bildutako ura eutsiko duten. Denborak esango du.

Aurten Balea elkarteko lehendakari izatea egokitu zait. Juntakoen artean *putxerazoa* egin zuten eta tontoena aukeratu. Ni, jakina! Izan ere, ordaindu gabeko lanak aukeratzen artista bainaiz. Total, Jokin, txorakeria dek-eta presidentea izatea! Ja... Eta Balearen Eguna iritsi zen eta bi Oriorekin egin nuen topo. Hauteskundeak tarteko eta denek *Balearen Eguna* erabili nahi! Batzuk *Oe Balea* jan nahi eta besteek Balea larrutu nahi. Eta gu erdian, erantzukizun instituzionala medio. Udalarekin pailazoak

antolatu genituen eta danborrada zuzendu. Gure egin beharra zen. Eta Balea Elkartek txokolatea eskaini zien pailazoetara joan ziren haurrei eta –gehiegi egin genuenez– larunbatean herri bazkari alternatibora joan zirenei. Herria erdibiturik eta txokolatea zementu.

Astebetera hauteskundeak. Eta zortzi egun lehenago ikusitakoa matematikoki asteleheneko egunkarietan agertu zen. Herria erdibiturik. Eta beldur naiz bi erdi horiek ez ote diren bi Orio bilakatuko. Ez ote diren gorroto eta ezinikusiak bultzatuta bi komunitate bilakatuko denboraren eraginez –agian gertatu da dagoeneko...– Horregatik, txuri edo beltza izan alkatea, karlista edo liberala, herriak duen inteligentzia medio gogorarazi nahiko nuke hau soilik *politika* dela. Azken finean, herrigintza

guztion lana dela eta garrantzitsuena zoriontsu eta bakean bizitzea dela. Orio guztiona baita, botatzeko eskubiderik ez dutenena ere bai –era guztietako pailazoak barne–.



Baina kontuak kontu eta beldurrak beldur, artikulu hau nire agurra izango da. Aurtengo urtea gogorra doa. Hitzarmena berreskuratu dugu neke eta rollo-txar askoren ondoren eta atsedean beharrean naiz. Nire idatziekin zer pentsatua eta batez ere alaitasuna transmititzea gustatzen zait. Nire bizi filosofia da: ingurukoak aldiro irribarretsu mantentzea. Moila bazter honetatik lortu badut irakurleari burua nekarazi eta ezpainen imintzioa lapurtzea, ni konforme. Baina hustu zait motxila eta behi honek ez du esne gehiagorik emango. Eskerrak KARKARARI mandako aukeragatik eta zabaldu plazara askatasun osoa eman didatela beti nire testuak idazteko. Eta niretzat plazera izan dela. Plazera KARKARAKO kolaboratzaile izatea.

Be apaxandegia  
**MARIJO**  
Neke eta munitentzat  
Eusko Gudari, 8 - Irujo  
Tel. 943 13 47 29  
ORIO

**LURDES**  
SANTALITZEA  
Eusko Gudari, 4 - Tel. 943 83 00 24

**LEIHOLAN**  
Aholkularitza teknikoa eta erakusketak  
Faberika Agote Industrialdea Agote, 5. Irujoan Zehar  
Tokiak: Irujo, 1. 20800 Zamora  
Alto Leizorral, 21. 20810 Orio  
Tel. 943 83 04 94

**Nahikari**  
HAUR DENEA  
Aribizteko kalea, 30  
20100 Orio  
Tel. 943 20 46 20  
www.nahikari.es

**LOBETXU JATELXEA**  
Eusko Gudari, 18 Tel. 943 83 03 07

**ARISTERRAZU**  
jatelxea  
Andatza auzoa - AIA  
Tel. 943 83 45 21

**Carmen eta Txomin**  
ARRANDEGIAR  
943 83 05 37 / 943 83 27 47

*Lizaso*  
dekorazioa  
Eusko Gudari, 40  
Tel. 943 83 00 84

**Gabon**  
TABERNA  
plater karkararikoak  
Tel. 943 83 06 09

**www.nahikari.es**

# Kanpoan etxean bezala

**N**i 2006ko irailaren 17an iritsi nintzen eta, jainkoari esker, iritsi nintzenetik Gelaton egiten dut lan. Urriaren 12an hasi nintzen hemen lanean; igandeetan baino ez nuen egiten lan hasieran, baina pixkanaka lanorduak gehitzen joan ziren egun dudan egoerara iritsi arte. Dokumentazio guztia legearen barruan dut eta kontratu mugabea egin didate.

Hasiera guztiak bezela gogorra izan zen nire ere. Kultura ezberdin batetara ohitu beharra, nahiz eta gaztelera hitz egiten den hemen ere, hitzak ez dira berdinak, eta ondorioz interpretatzen jakin beharra dago eta, zer esanik ez, entzuten.

Jendeak pazientzia handia izan zuen nirekin hasieran. Nikaraguatik Euskal Herrira etortzean beste mundu bat da, inondik ere, baina jendearekin oso gustura aurkitu naiz hasieratik. Bat gehiago bezala hartu ninduten, nire nagusia izan zen, Marixabelengandik hasita. Egun Marijo dut nagusia eta lana ematen jarraitzea eskertzen diot, zailantzarik gabe.

Jendaurrean lan egitearen abantaila ere asko baliatu naiz, egia esan. Gehiegi ez bada ere, euskara apur bat ikasteko gai izan naiz, eta jende asko eta asko ezagutu dut. Haiekin euskara pixka bat praktikatzten dut.

Nire lagun baten bidez lortu nuen lana. Kai-xo tabernan, *txokolatenean*, egiten zuen lan hark eta bezero batek komentatu zion nola Gelaton langile bila zebiltzan. Aurkeztu eta ni aukeratu ninduten. Egun batzuk egin nituen

proban. Lotsa handia ematen zidan jendaurrean lan egiteak hemen, nahiz eta aurrez Nikaraguan denda batean egiten nuen lan. Ez nekien kafetera erabiltzen, ogi izenekin ere galduta nebilan... Baina denborarekin ohitu egiten zara, igandetik igandera, eta horrela sortu zitzaidan egun dudan lanpostua.

Jendearekin abegitsua izan beharra duzu, eta berek ere modu berean tratatu ninduten. Eguneroko eguneroko jende antzekoa izaten da, bizi guztian bezero izan diren pertsonak etortzen dira gurera. Haiek beren ohiturak zeintzuk diren azaltzen dizute gustu handiz: nik eguneroko ebakia hartzen dut sakarinarekin, nik esne hotzarekin... Berek ere galderak egiten dizkizute eta jendearekin konfiantza horrela irabazten da. Oso gustura sentitu naiz.

Nire herrian modako denda batean egin nuen lan, 7 urtez. Ez nintzen aberatsa, baina ongi bizi nintzen. 21 urte nituen aukera hau sortu zitzaidanean eta Leslie nire lagunak animatuta, etorri nintzen. Gustura nago, 5 urte beteko ditut aurten Orion, tartean nire familia bisitatzen izan naiz, eta gogorra izan arren, pozik itzuli naiz berriz ere Euskal Herrira.

Bezero oso ezberdina da hemengoa, negozioa ere oso ezberdina delako. Baina horretaz gain, herri txikia da Orio. Orion asko hitz egiten da bezeroarekin eta ezaguna zara herrian.

Lanetik kanpora ere badut herritarrekin harremana. Dantza egin, zerbeza batzuk hartu, barre eginez gozatu... hori egiten dut ahal dudanero. Koadrilan irteten gara, guztiak ere Nikaraguakoak gara eta gazteak. Beraz, gozatzeara ere tokatzen zaigu. Jendeak arraro begiratzen gaitu, baina juerga egiteko beste modu bat dugulako da. Baina hori hemen eta mundu guztian gertatzen da, denak ezberdinak gara eta.

Etorkizunera begira badakit noizbait etxera itzultzea tokatuko zaidala. Ez dakit bihar, datorren urtean, hala hemendik hogeitaurtera itzuliko naizen, baina badakit itzuliko naizela tokatzen zaidanean.



## Bizitza abiadura truk?

**M**aiatzeko asteburuetan, Aiako rallyko bezperan, eta lasterketa eguneko goizean bizikletaz, oinez edo autoz Aia inguruan ibiltzeko asmoa baduzu, jakin ezazu: bizia arrisku larrian jarriko duzu, izugarriko abiaduran etortzen diren rallyko auto-gidarien edo horien estiloa imitatu nahi duten guztien eskuetan.

Errepide inguruan bizi den inork ez zuen begirik bildu ostiral gauean, ihes-hodien burrunba zela eta. Larunbatean, zure burua erruleta errusiarrean jokatzeraren behar hartzea zen etxetik ateratzea.

Badakit batzuentzat sekulako zirrara sortzen duen eguna dela, badakit txoferrek aztertu behar dutela bidea, bihurtzeko bakoitza ezagutu, estrategia landu... baina norbaiten biziaren prezioan ez.

Jar ditzatela ertzainak Andatzen zein Aiako sarreran, ea seguru bizitzeko eskubi-dea errespetatzen zaigun bertakooi. Edo, bestela, arduraren garbi esan dezala maiatzeko asteburuetan bide hori arauz kanpo gelditzen dela, eta rallyko bidean bizi garenok legearen babesik gabe uzten gaituela, eskubi-deak etenda eta legez kanpoko gidatzeko modua baimenduta.

Zeren zain gaude? Lehen hilotza bide bazterrean noiz azaldu zain?

**Lotsa handia ematen zidan jendaurrean lan egiteak hemen, nahiz eta aurrez Nikaraguan denda batean egiten nuen lan**

Igo zaitoz-naiz berrietara!

**Galeria**

943890416-577149334  
galeria@orio.com

ardeak, urdaikiak, gaztak, kontserbak, janari prestatuak

**etxeraino eramaten ditugu**

**PIZZA BARRA**

943 83 09 84 aita lertxundi, 36  
ORIO

**bodegas ERRASTI, S. L.**



Eskuaklerako banatzailea  
Zudugarai, Getariako txakolina  
lagares, ardo gazti nafarra  
Bodegas Gailur, Señorío de Lacrignán  
Gailur eta Ardandegi,  
Añibar Errioxako ardoak

Eskala Guzati 48. ORIO • 943 03 03 88 / 03 52 12 • E-posta: bodegasmoti@bodegast.net

**Azkue**

Tf: 943 13 04 38

**Allianz** 

**Marigre Zaldúa**  
aseguru agentea

Itzi Cirio, 10. berraketa  
Telefonoa: 943 13 47 00  
faxa: 943 83 57 92  
e-mail: marigre.zaldua@allianz.es

**Alustiza Autobusak**  
*Alustiza Bidasoa S.L.*



Autobus litera eta  
16, 19, 25 eta 56 plazakoak.  
Bidaia eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

Tel: 943 13 28 93 / 83 08 80. Mugikorrak: 656 78 30 01 / 656 78 29 99

**INDO**

**Garraio frigorifikoa**  
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA



Olasakoegia, 12 - Tel. 943 894 024 - Fax. 943 130 144 AIA-ORIO

**AKOBE ACTIVA**  
**JUAN ALBIZU**

Etxetresna elektrikoak  
sukaldeko altzariak

Abeslari, 6 - 20810 ORIO  
Tel/Fax: 943 83 12 49 - albizu@activahogar.com

**KOLON TXIKI**

Herriko Enparantza, 4  
ORIO  
Tel. 943 83 00 44

**uranga**  
autozerbitzua



**Aliprox**

Enplegu Gidatzailea: 13-16  
ORIO  
943 83 35 75

**LUXARBE**  
*igeltzeritza*

Igeltzeritza orokorra,  
denetarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu  
konpromisorik gabe

Lan txukuna  
eta merkea

Tfnoak: 943 83 59 00

**ALTERRI**

Karta enberritua

Aziberruan, eguraldi eta gaitan,  
menu bereziak

943 83 07 62

**Orioko Herri Ikastola**

Guraso Kooperatiba

ABESLARI KALEA, 8  
TEL: 943 83 47 04  
FAX: 943 13 09 38  
orio@ikastola.net  
www.oriokoikastola.net

**ITSASADARRA, S. L.**

Jose Angel Iradi Udabe

aseguru artekaria  
finika administratzailea  
gestorla  
enpresa berriak sortzeko diru laguntzen kudeaketa

Tel: 943 83 40 25 Fax: 943 83 54 88 itsasadarra@itsasadarra.com  
Itzi Cirio 4, berraketa, 20810 Orio

**iñaki argazkiak**  
**caperochipi**

ezkontzeko asmarik bai?

www.ikapero.com/ezkontzak  
659378751  
ikapero@ikapero.com

**Joana Murgiondo**  
Aseguru-agentzia

Abeslari, 4-2. esk.  
Tfnoa: 943 13 46 07

**ITZIAR**

kirolak

Tel. 943 83 31 03

# Gaia emanda Turismoa Orion

Uda sasoia laster iritsiko da eta turistak gero eta gehiago dira gure bazterretan. Maiatzean, jada, ikusi ditugu bertan. **Zer iruditzen zaizue Oriok duen turismo eredia?**

## Oriotarrentzat behar du Oriok

**B**alearen Eguna, Bisiguaren Eguna, Txuletaren Eguna, Erreboiloaren Eguna: festa asko herrian eta herri-tarrei begira, gutxi. Horrelako festak antolatu eta kudeatzeko garaian herritarrak kontuan hartu behar direla argi dago, gu geu gara-eta herriaren motorra. Bertako taldeen laguntzari esker bidertzen dira herriko ekintzarik gehienak, dena boluntario modura eta ordainik eta inolako saririk espero gabe. Hori da herritik eta herri-tarrek herriaren zentzua jardutea.

Aipatutako hori guztia herrian gertatzen da, baina bitartean zer gertatzen da Antilla hondartzarekin? Ez ote da, bada, Orioko hondartza turismoari bultzada garrantzitsu bat emateko toki ederra? Askotan, bertako egoera ikusi eta ez du ematen hala denik. Txoko guztie-

**Mota guztietako zikinkeria pilatzen da hondartzako bazterretan eta ez da hori aldatzeko asmorik ikusten. Hondar mordo dago neguaz geroztik toki askotan, zakarrontziak beterik larunbatz geroztik eta, beraz, pentsa igandeko panorama...**

tako jendea pilatzen den bezala, mota guztietako zikinkeria pilatzen da bertako bazterretan eta ez da hori aldatzeko asmorik ikusten.

Hondar mordo dago neguaz geroztik toki askotan, zakarrontziak beterik larunbatz geroztik eta, beraz, pentsa igandeko panorama... Eta azer nolako gauak izan ditugun azkenaldian hondartza aldean: gau ilunak, beldurra emateko horietakoak, inolako argirik gabe... planetarioan egotearen parekoa. Gure

**ZIA**

partetik, Galernako terrazan behintzat, egoteko aukerarik ez, barruko argi printzaren bat aprobetxatu ezean.

Kanpotik etortzen

den jendeak kondiziotan ikusi beharko luke hondartza, berriz ere bertara etortzerik nahi badugu. Turismoak ahoz ahokoarekin funtzionatzen du eta hori zaindu beharreko zerbait dela uste dut. Baina kanpoko jendea utzita, guretzat da garrantzitsua hondartza, zenbat oroitzen Orioko plaian, zenbat momentu on, zenbat ordu... Daukagun hori zaindu dezagun ezer berririk planteatu aurretik. Toki ederra da Orio eta guztion lanarekin oraindik eta hobea izan daiteke. Turistek asko irabaziko dute, baina, batik bat, gu izango gara gehien irabaziko dugunak. Badator uda, turistak, sanpedroak, eguzkia, bizipoza... aprobetxatu bakoitzak ahal duen erara.

Jon Makazaga  
Ostalaria

## Oreka bilatu nahian gabiltza

**M**unduko edozein txokoren moduan, gure herriak ere aspalditik ezagutu du jendearen joan-etorria. Turismoa sortu zen garaitik euskaldun eta kanpotar ugari izan ditu lagun. Izan ere, inguru natural eder honetan sortutako herri txiki, bizi honek abenturarako aukera eman dio hurbildu denari ostatu, ostalari, merkatu eta aisialdi zerbitzuak eskainiz.

Kanpinak 50 urte ditu, eta herria turismoa garratzen hasi zenekoa da. Kanpina eta horren inguruan egin ziren jate-txe, taberna, etxe gutxi batzuk, merenderua, eskola, zaldi-gurdia... izan ziren hogeita hamar bat urtetan hondartzako paisaia txertatu eta herritar zein turistei zerbitzu eman zietenak. Orion, hondartzako giroa sortuz adin eta itxura askotako jendea ikusten zen, bainu-jantzia soinean, gozatzen.

Herrian, Goiko kaletik Beheko kalera mugitzen hasi

zen jendea eta komertzioa eta, joera hori, mantendu egin da gaur arte.

Urte oparoak bizi izan ditu gure herriak, baina azken 15 urte hauetan egin dira aldaketarik handienak. Zer hobetu bazegoen, bai; baina, zoritxarrez, herritar askorekin hitz egin gabeko eta landu gabeko eraldaketak izan dira, eta emaitza begi bistakoa da: ekologikoki bandera beltza eta, turismo aldetik, kanpotik hartutako eredu hotz eta artifiziala. Itxurari eman zaio

garrantzia, beste esparru

asko alde batera utziz.

Azpiegiturek aberastasuna eta ongizatea ekarriko dutela sinetsi izandu da. Eta oraindik

ere sinesmen horren eraginak jasaten ari gara.

Herrian gauzatu nahi dena alde sozial, ekonomiko, kultural eta ekologikoa kontuan izanik, modu orekatuagoan lantzea izango litzateke zentzuzkoena. Herritarren parte hartzean oinarritutako turismo ekintzen beharra aurreikusten dut eta, hirugarren sektorea indartu nahi bada, laguntzak eskuragarri jarri beharko dira. Orio oso anitza da, eta bai bertakoei eta baita gerturatzen direnei ere aukera ugari eskaintzen dizkio. Ditugun baliabideak modu irekian, eraginkoragoan, orekatuagoan, ekologikoagoan eta koordinatuan kudeatzea besterik ez zaigu falta. Denon esku dago!

Leire Zinkunegi

Orioko Udaleko Turismo batzordeko burua

**Itxurari eman zaio garrantzia, beste esparru asko alde batera utziz**



Esteve Barcelo *Verderolek* barre asko eragin zuen Kalakarin . KARKARA

## Ederra 'glosada'!

### Kritika Bertso saioa

**Bertsolariak eta glosadoreak,** Maiatzaren 26an Kalakarin egin zen bertso saio bereziari buruzko kritika.

Bisita xelebrea izan genuen pasa den astean Errikotxiakook: Menorkako bertsolariak, glosadoreak alegia. Bertsozale Elkartearen bitartekaritzaz, asteburu pasa etorri ziren Euskal Herrira, eta Orion zuten lehenengo saioa.

Glosadoreek katalanez abesten dute, gitarraren laguntzarekin. Gaur egun *Soca de mots* elkartean bilduta daude plazaz plaza ibiltzen

diren glosadore asko, eta horietako hiru izan ziren gurean: Joan Moll, Esteve Barcelo *Verderol* glosadoreak, eta Ismael Moll gitarra jotzailea.

Bilbon lur hartu bezain pronto etorri ziren herrira, eta bertso eskola erakutsi genien. Ondoren, Jon Amenaarrek prestatuta, elkarrekin afaldu genuen Balea elkartean.

Beti bezala, 22:00ak ondo jota hasi zen saioa. 30 bat lagun Kalakarin eta beste dozena bat tabernako eskaratzean, aireportuetako erretzailen *kutxatxoan* baleude bezela.

Oholtza gainean, aldiz, zazpi: hiru menorkarrak, Iñaki

Gurrutxaga, Xabier Sukia, Mikel Iruretagoiena aurkezlea eta Eli Manterola itzultzailea. Nahikoa meritu izan zuen Elik Menorkako katalana publikoari euskarara itzultzen, eta euskarazkoak glosadoreei belarrira itzultzen.

Hala eta guztiz ere, esango nuke, graziaz handiena hitzik behar ez den hizkuntza moduek sorrarazi zuela. *Verderolen* txapelak, Joan Mollen kantaerak, Sukiaren glosa laboanok, Gurruren paridek eta erdizka ulertzen ziren glosek. Inkomunikazioaren komunikazioa ote?

RIKARDO UZKUDUN

### Ikasleak idazle Riane Lopes

## Bahia

Orain dela hiru urte etorri nintzen Oriora bizitzera. Hasieran, Orio oso ezberdina izango zela uste nuen, baina hiru urte hauetan konturatu naiz, zenbait gauzatan, Orio eta Bahia oso antzekoak direla. Eta zuek pentsatuko duzue: *Nola da posible Brasilgo hiririk handienetako bat eta Euskal Herriko herri txiki batek antza edukitzea?*

Bada, bai! Biek hondartza oso polita daukate. Bahiakoa luzeagoa da eta hondarra zuria-goa du, baina biak surflariz beteta egoten dira. Orion festa asko egiten dira: sarnikolasak, Baia Eguna... Han, Inauteriak dira festarik ospetsuenak.

Hala ere, badaude zenbait gauza oso ezberdinak. Eskola goizez edo arratsaldean izaten da, haur bakoitzak erabakitzen du. Hemen horrela izango balitz...

Orion oso gustura nago; baina udan, bero handia egiten duenean, hondartzan etzanda, begiak itxi eta Bahia datorkit burura. Begiak ireki eta koko-ur saltzailearen bila hasten naiz... orduan entzuten da: *Faaanta, Coca-Coola, preskua!*

**Hiru urtean konturatu naiz Orio eta Bahia oso antzekoak direla**

IKUSI aurten go arropa kolektiboa eta bideoa [ardatzaboutique.com](http://ardatzaboutique.com)

**ARDATZA modas**

Eusko Gudariak, 7 • Tel./Fax: 943 83 10 88 • 20810 ORIO

**ARKAITZ Taberna**

Pintxoak, plater konbinatuak eta ogitarleko mundialak

MIESLAKI ZALEA, 4 • Tel: 943 33 16 37

## » HANDIK ETA HEMENDIK



“Xabier Letek dioena egia baldin bada, idazleon patua bitxia da. Ez gara politikariak, ez gara moralistak, ez gara historialariak, ez gara soziologoak, ez gara filosofoak, ez gara ezertan adituak. Baina erreka

zikinen iturri garbiak bilatzen ahalegintzea da gure lana. Ez dakigunari forma ematen ahalegintzen gara; hitzezko forma artistikoak bilatzen” **Anjel Lertxundi**, idazlea,

Donostian, 2011ko maiatzaren 20an.

## » OSPAKIZUNA



## Guraso gazteen poztasuna

Argazkian ditugunak, Naiara Jaka, Goiatz Galarraga Jaka eta Aimar Galarraga dira. Aurreko KARKARAN maiatzaren 5ean jaio zela esan genuen arren, maiatzaren 11n jaio zen Goiatz txikia. Pozik dago bikote gaztea txikiaren jaiotzarekin, eta zer esanik ez familia. Osaba Eneko berriz... txoratzen! Besarkada eta muxu handi bana bidaltzen die txoko honetatik hiruko familiari etxekoan partetik.

## » ZORIONAK!

## EAJ, Bildu eta Oraini

**O**rioko eta Aiako udaletan ordezkaritza lortu duten guztiak zoriondu nahi ditugu gure txoko honetan eta zortetik onena opa diegu bi herriak gobernatzeko zeregin zailean: asma dezatela guztion onerako!

Krisi ekonomikoak markatuko du agintaldi berria eta, krisi horrek KARKARAN ere eragina duela kontuan hartuta, eskaria egin nahi diegu zinetotzi berriei, egokiera aprobeztatuta: har dezatela estrategikotzat euskarazko komunikabideen alorra eta eman diezagutela behar dugun babesa eta laguntza, garrai zailotan hazten eta hobetzen segitu ahal izateko.

Gure hizkuntzak hainbeste eta gehiago ere merezi du eta.

**AMILIBIA**  
ONTZIOIAK, S. L.

Lein porosituak porositu eta antolatzen.

gel maitatu lekuak eta antolatzen.

Olasnegategia auzoa, 52  
34 943 83 08 29  
faxa 34 943 89 40 81  
amilibia@amilibia.com  
www.amilibia.com

clarivitegia  
**ANTILLA**  
jittelucea

Muskari Kalea, 2 - TEL. 943 83 23 00

Khikladenda - Ume arropa  
**argine**

www.lasnet.com/argine  
Tel. 943 13 48 89

25eko PESKONTUA FAMILIA  
UGARIEN TXARTELAREKIN

**Izarra Bideoa**  
Aritzaga 15. Urte 943 83 38 81

**Eskaintza bereziak  
likidazioagatik**

**Eusko Gudari kalean  
izango gara laster**

**10 HILABETE INTERESIK GABE!**

**TIEW 21**

# Maradona, Pepita serora eta Felipe Gonzalez

## Duela 25 urte 1986ko ekaina

**M**unduaren begirada Mexikora zuzendu zen egun asko eta askotan 86ko ekainean. Maradonaren mundiala izan zen hura, baina gurean ere gauza garrantzitsuak gertatu ziren. Atlantikoaren beste aldean *La mano de dios* famatua egin zuen izar argentinarra eta, egun berean, Orion, Espainiako presidente berria aukeratzeko hauteskundeak izan ziren.

Orduan ere, EAJk lortu zituen boto gehien, 856. Atzetik HB geratu zen 610 boto jasota eta, segidan, hurrenez hurren, Euskadiko Ezkerra 311rekin, PSE 285ekin, Alian-

Goizeko 11etan meza izan zuten eta horren atzetik Auspigiñene plaza inauguratu zuen Imanol Murua orduko ahaldu nagusiak. Plaza hartan, Pepitaren irudia zuen eskultura bat ere jarri zuten.

Omenaldiaren baitan, kanpai bueltekin kontzertu moduko bat egin zuen Pepitak, besteak beste, Txomin Landa lagun zuela. 12 kanpai-jotze mota egin zituen Pepitak: hil kanpaiak, jaiotzarenak, angelusarenak, orduak... baita izurriren baten presentziak abisatzen zuten kanpaldoinuak ere.

Kirolei dagokienez, bi garaipen lortu zituzten Orioko kirolariek. Alde batetik, Bautista Olidenek Martiartuko idi-probak irabazi zituen eta, bestetik, saskibaloian kadete neskek Gipuzkoako Txapelketairabazi zuten.

### Lan-mundua

Arrantzealeak greban ziren garai hartan, beren ontziak Hondarribian eta Hendai-

daian utzi eta protesta eginez ibili ziren zenbait egunetan.

Orioko arrantzealeak ere deialdira batu ziren, eta Hondarribiatik Hendaiarako mugara egindako manifestaziora 6 autobus joan ziren beteta ekainaren 12an. Guztira 10.000 inguru lagun protesta egiteko elkartu ziren.

Orioko Udalak 11 lanpostu plazaratu zituen langabe-tuentzat. 6 hilabeterako izan-

go ziren lanak eta arlo ezberdinetan eskaini zituzten, gainera: bulego laguntzaile bat, udaltzain laguntzaile bat, igeltsero bat, bi peoi kaleak konpontzeko, hargin bat, bi hargin laguntzaile, itzultzaile bat eta elektrikari bat.

Eskaerak ekainaren 14rako aurkeztu behar ziren udal-txean.

**Orduan ere EAJk lortu zituen boto gehien, 856. Atzetik HB geratu zen 610 boto jasota. 311rekin, Euskadiko Ezkerra izan zen 3.**

### Sanpedroak

Sanpedro jaietan uztaillaren Ieko 70 urtetik gorakoen bazkariak gain, ekainaren 28ko koadrilen eguna eta 29ko San Pedro Eguna ere nabarmen-tzekoak izan ziren.

Koadrilen egunean, goizetik hasi zen festa *txirrindulari itzuli barregarriarekin*. Herri bazkaria ere izan zen 1.300 pezetaren trukean. Goizaldean, sokamuturraren atzetik, txokolate beroa eta oilasko errebanatu ziren.

Hurrengo eguna dianarekin hasi zen. Meza nagusia izan zen jarraian eta, handik irtenda, bertsolariak plazan. Bazkal orduan plater tiraketa izan zen hondartzan eta, arratsaldeko 16:00etan, futbito txapelketako finalak frontoian. Horrekin bukatu ziren festak.

## JAIOTAKOAK

- Daniel Blanco Iruretagoiena, Orion, maiatzaren 25ean.
- Tiago Albeniz Morales, Orion, maiatzaren 23an.

## EZKONDUTAKOAK

- Joseba Iñaki Manterola Elorza eta Eva Maria Garcia Leon, Orion, maiatzaren 28an.
- Alaitz Aizpurua Albizu eta Asier Uranga Zumeta, Orion, maiatzaren 25ean.
- Imanol Telleria Barriola eta Maitane Mujika Uranga, Orion, maiatzaren 21ean.
- Fabiola Judith Castro Prado eta Marxiel Genoba Solabarrrieta, Orion, maiatzaren 21ean.

## HILDAKOAK


- Antonio Iturzaeta Arruabarrena. Orion, maiatzaren 25ean. 91 urte.
- Jabier Portularume Izeta. Aian, maiatzaren 22an. 64 urte.

# (1986)

za Popular 105ekin, CDS 25ekin, PCE 7rekin eta IU 5ekin geratu ziren. Ekainaren 22a zen eta Felipe Gonzalez presidente hautatu zuten, gehiengo absolutuarekin, gainera.

Egun batzuk lehenago, ekainaren 8an, Pepita Zabala serora omendu zuten Aian. 53 urte zeramatzan ordurako Pepitak serora eta kanpai-jotzaile lanetan.

Eskela edo urteurreneko gogoangarria KARKARAN jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora: **943 83 15 27**



**AHOLKULARITZA**  
Fiscal, laborala, kontablea

**Eugenio Garmendia**

ASEGURU ARTEKARIA

IBAI ONDO, 1  
Tel: 943 83 44 66 - 943 83 49 17

**BACHEN LOREAK**  
OREKA ENERGETIKOA

- Erromendua herrikoak -  
- Oreak energetikoak -  
- Bachen loreak -

Mus Ramondiz Hategun  
Tel: 655 728 251  
www.bachenloreak.com

**Goizeko**  
KAFFETEGIA

943 83 28 55

Aita Lantxandri 3a berrita - ORIO  
Autobus parada ondoan

**jaietxea**  
logelak

**gazteategi**

Elkano auzoa  
943 13 16 06





KARKARA

## “Jende asko ez da ausartzen Internet bidez bidaiak kontratatzerara”

### Maribel Hornero

Eroski Bidaiak-eko agentea

Bizimodu bidaiaria dirudi Maribel Hornerorenak. Extremadurakoa da, 15 urte dira Zumaian bizi dela eta lau urte daramatza egunero Oriora etortzen, Eroski bidaiak agentzira. Uda gainean den honetan, oporretarako planen berri eman digu.

#### IRATIAGIRREAZALDEGI

Enpresaritza eta ekonomia ikasi ondoren bidaiekiko zaletasunak bidaia agente ikastaroa egitera eraman zuen. Zumaian eskola partikularrak eman, lana aldatu eta Oriorako bidaia txartela hartu zuen gero.

#### Jendea ari da udako bidaiak prestatzen?

Aste Santuan hasten dira galdezka aurretiaz eros daitezkeen bidaiei, umeen deskontuei eta halakoei buruz. Baina azken bi urteotan ez dira hainbeste aurreratzen. Hala ere, nora eta nola joan nahi duten ziur dutenak garaiz etortzen dira.

#### Zein leku eskatzen dituzte gehien?

Kostakoak, Salou eta Benidorm gehien. Kanarietara ere joaten da jendea, baina hegazkinak bidaia garestitzen du eta haurrek deskontuak izan arren, txartela beti ordaindu behar da; beraz, horrek behar bada atzera botatzen ditu batzuk. Aurtan, Balearrak daude eskaintzan. Itsas bidaiak ere egiten ditu jendeak eta Karibera joaten direnak ere badaude. Bada surflari talde bat hegaldiak hartzen dituenen: Brasileria, Balira, Australiara...

#### Udan, beraz, hondartza.

Eguraldiak baldintzatzen du dena. Hiru egun euripean pasa eta eguzkia eskatzeratortzen da jendea, nahiz eta eguzkia inon segurua ez izan. Azken aldian, Andaluziarako bidaiei buruz galdezka etorri dira asko, baina autoan 10-11 ordu dira eta hegazkinen konbinazioak ez dira egokiak, Cadizera joateko, esaterako.

#### Nolako bidaiak aukeratzen dituzte?

*Paketeak.* Kanarietara doazenek, adibidez, hegaldia, aireportua eta hotela arteko bidaia eta egonaldia. Benidormera, Saloura... doazenek egonaldia; batzuek apartamentuetan, baina gehienek hotelean. Bidaia autoan egiten dute gaztetxo edo erretiratu batzuek izan ezik.

#### Jendea oporretara zertara joaten da?

Umeak baldin badaude, jolas edo abentura parkeren batean pasatzen dituzte pare bat egun, baina gainontzean paseatzera, jatera eta hondartzan edo igerilekuan atseden hartzerara joaten dira. Ikasurte bukaerako bidaietan jaia eta parranda nahi izaten dute gazteek eta taldeko bidaiak antolatzen dituen sailek bideratzen ditut. Kultur bidaiak, berriz, batik bat, Aste Santuan egiten dira.

#### Internet bidez hartzen al dira bidaiak?

Jendeak internet bidez informazioa jasotzen du, baina asko ez dira bidaia kontratatzerara ausartzen, asteburuko hotel egonaldiren bat ez bada. Guk interneteko eskaintzak berdintzen ditugu batzutan eta jendeak nahiago izaten du gurekin kontratua egin eta ziurtatzea.

#### Kanpora joan bai, baina kanpotik hona datozeinei zer gomendatuko zenieke?

Orion ez dut askorik ezagutzen, egunetik egunera txoko berriren bat ezagutzen dut, baina hondartzara joateko esango nieke eta, zerbait ikustekotan, alde zaharra eta eliza ingurua. Jendeak jateko tokiei buruz galdetzen du. Turismo bulegoan ere jaso nuen informazioa badaezpada, norbaitek galdetuz gero.

#### Egin proposamena aurtengo udarako

Ni Kanariar irlen oso zalea naiz. Orion jendea Salou eta Cambrilsera joaten da gehiago. Peñíscola edo Cadiz ere egokiak dira. Maurizio irlak modan daude, baina bidaia garestia da familian joateko. Cabo Verde eta Azoreak ere aukerakoak dira.

» AZOKA

**Iragarkietarako txokoa.** Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

**Erosteke**

■ Si bemoleko trikitixa erosi nuke, egoera onean dagoena. 4 ahotsekoa izan beharko luke.. Salduko lidakeenak dei 652735141 telefono zenbakira.

**Saltzeko**

■ Garaje itxia salgai Ibai Ondon. 21,70 metro koadro; 3 metroko altuera. 45.000 euro. Interesatuak deitu 627 63 8776ra.  
 ■ Garaje itxia salgai Mendi beltz futbol zelaiaren azpian. 20,67 metro koadro. Telefono zenbakiak: 646 28 99 07/630 37 0138.

**Errentan**

■ Gela bat alokatuko nioko etxea partekatu nahi duenari. Tf.: 664 24 78 88.

■ Etxea partekatuko nuke bakarrik edo laguntza beharrez dagoen emakume batekin. Tf.: 695 63 96 04.

■ Orion errentan hartzeko etxebizitza bila nabil. Dei ezazu 676 28 25 88 telefono zenbakira edo, lan orduetan, 943 83 15 18 telefono zenbakira.

**Galdutako gauzak**

■ Haur txiki-txiki baten oinetakoa galdu dut. Txurria eta Nike markakoa. Norbaitek aurkitu badu, dakarrela KARKARARA.  
 ■ Balearren egunean, Gure Etxea elkartearen erloju hori bat korrea txuriduna utzi nuen. Norbaitek aurkitu badu, eskertuko nuke bueltatzea. Tf: 687923335.

**Lan eskaerak**

■ Edozein motatako lana egingo nuke, goizez nahiz arratsalde. Josue. Tf.: 609777894.

■ Neska euskalduna umeak zaintzeko prest, arratsalde. Eskarmentua daukat. Interesatuak deitu lasai. Tf.: 679 85 23 41

■ Desbrozadorearekin lur-sailak garbitzen ditut. Prezio oneko zerbitzu txukuna. Tf.: 697750196.

■ Neska arduratsuak etxeak garbitu edo edadetuak zainduko lituzke. Eskarmentua badauka. Deitu 600 7456 86 telefono zenbakira.

■ Neska gazteak etxeak garbitu edo haurrak zainduko lituzke uda honetan. Tf.: 666 29 75 01

» ITSASOA

EGUNA	ITSASGORA	ITSASBEHERA	ILARGIA
03	06:13 eta 18:26	12:11 eta ____	☾
04	06:53 eta 19:06	00:41 eta 12:50	☾
05	07:36 eta 19:50	01:23 eta 13:32	☾
06	08:24 eta 20:40	02:08 eta 14:19	☾
07	09:17 eta 21:35	02:59 eta 15:12	☾
08	10:18 eta 22:38	03:54 eta 16:11	☾
09	11:23 eta 23:45	04:56 eta 17:16	☾
10	12:31 eta ____	06:03 eta 18:25	☾
11	00:54 eta 13:35	07:10 eta 19:32	☾
12	02:00 eta 14:34	08:12 eta 20:35	☾
13	03:02 eta 15:29	09:09 eta 21:32	☾
14	03:58 eta 16:20	10:01 eta 22:26	☾
15	04:51 eta 17:09	10:50 eta 23:17	☾
16	05:40 eta 17:55	11:37 eta ____	☾
17	06:27 eta 18:40	00:05 eta 12:21	☾

» ZAINTZAKO BOTIKAK

EKAINA	Azaldegia
■ Ietik 3ra, Lasa.	Urdaneta kalea, 8. 943133183 Zarautz
■ 4an eta 5ean, Gallo.	<b>Etxeberria:</b> Gipuzkoa kalea, 17. 943832398 Zarautz
■ 6an, Iriarte.	<b>Mutiozabal:</b> Kale Nagusia, 12. 943832970 Zarautz
■ 7an, Larrañaga.	<b>Larrañaga:</b> S. Frantzisko, 16. 943133814 Zarautz
■ 8an, Mutiozabal.	<b>Lasa:</b> Herriko plaza. 943830936 Orrio
■ 9an, Barrenetxea.	<b>G. Artifiano:</b> Zigordia kalea, 17. 943134019 Zarautz
■ 10ean, Gallo.	<b>Iriarte:</b> Zinkunegi, Pilartxo Enea. 943132983 Zarautz
■ 11n eta 12an, Azaldegia.	<b>Zulaika:</b> Bizkaia kalea, 41. 943133994 Zarautz
■ 13an, Larrañaga.	
■ 14an, Mutiozabal.	
■ 15ean, Barrenetxea.	
■ 16an, Gallo.	
■ 17an, Iriarte.	
■ 18an eta 19an, Zulaika.	
■ 20tik 26ra, Lasa.	

» TREN ORDUTEGIAK

DONOSTIA-ZARAUTZ

Donostia	5:47	6:17	6:47	7:17	7:47	8:17	8:47	9:17	10:47	11:47	12:17	12:47	13:17	13:47	14:17	14:47	15:17	15:47	16:17	16:47	17:17	17:47	18:17	18:47	19:17	19:47	20:47	21:47
<b>Aia-Orio</b>	<b>6:11</b>	<b>6:41</b>	<b>7:11</b>	<b>7:41</b>	<b>8:11</b>	<b>8:41</b>	<b>9:11</b>	<b>10:11</b>	<b>11:11</b>	<b>12:11</b>	<b>13:11</b>	<b>14:11</b>	<b>15:11</b>	<b>16:11</b>	<b>17:11</b>	<b>18:11</b>	<b>19:11</b>	<b>20:11</b>	<b>21:11</b>	<b>22:11</b>								
Zarautz	6:19	6:50	7:20	7:50	8:20	8:50	9:20	10:20	11:20	12:20	12:50	13:20	13:50	14:20	14:50	15:20	15:50	16:20	16:50	17:20	17:50	18:20	18:50	19:20	19:50	20:20	21:20	22:20

ZARAUTZ-DONOSTIA

Zarautz	6:08	6:38	7:08	7:38	8:08	8:38	9:08	10:08	11:08	12:08	12:38	13:08	13:38	14:08	14:38	15:08	15:38	16:08	16:38	17:08	17:38	18:08	18:38	19:08	19:38	20:08	21:08	22:08
<b>Aia-Orio</b>	<b>6:15</b>	<b>6:45</b>	<b>7:15</b>	<b>7:45</b>	<b>8:15</b>	<b>8:45</b>	<b>9:15</b>	<b>10:15</b>	<b>11:15</b>	<b>12:15</b>	<b>12:45</b>	<b>13:15</b>	<b>13:45</b>	<b>14:15</b>	<b>14:45</b>	<b>15:15</b>	<b>15:45</b>	<b>16:15</b>	<b>16:45</b>	<b>17:15</b>	<b>17:45</b>	<b>18:15</b>	<b>18:45</b>	<b>19:15</b>	<b>19:45</b>	<b>20:15</b>	<b>21:15</b>	<b>22:15</b>
Donostia	6:39	6:50	7:20	7:50	8:20	8:50	9:20	10:20	11:20	12:20	12:50	13:20	13:50	14:20	14:50	15:20	15:50	16:20	16:50	17:20	17:50	18:20	18:50	19:20	19:50	20:20	21:20	22:20

Gipuzkoan garraiatzeko begira: www.mugitu.com. Grisez dauden orduetan trenak daude asteburuetan.

» AUTOBUS ORDUTEGIAK

**LANEGUNETAN**

DONOSTIA-ZARAUTZ

Donostia	6:55	7:40	8:10	8:40	9:10	9:40	10:40	11:40	12:10	12:40	13:10	13:40	14:10	14:40	15:10	15:40	16:40	17:40	18:10	18:40	19:10	19:40	20:15	21:00	22:15
<b>Orio</b>	<b>7:25</b>	<b>8:15</b>	<b>8:45</b>	<b>9:15</b>	<b>9:45</b>	<b>10:15</b>	<b>11:15</b>	<b>12:15</b>	<b>12:45</b>	<b>13:15</b>	<b>13:45</b>	<b>14:15</b>	<b>14:45</b>	<b>15:15</b>	<b>15:45</b>	<b>16:15</b>	<b>17:15</b>	<b>18:15</b>	<b>18:45</b>	<b>19:15</b>	<b>19:45</b>	<b>20:15</b>	<b>20:50</b>	<b>21:35</b>	<b>22:50</b>
Zarautz	7:35	8:25	8:55	9:25	10:25	11:25	12:25	12:55	13:25	13:55	14:25	14:55	15:25	16:25	17:25	18:25	19:25	19:55	20:25	21:00	21:45	23:05			

ZARAUTZ-DONOSTIA

Zarautz	6:45	7:15	7:45	8:15	8:45	9:20	9:45	10:45	11:45	12:45	13:20	13:45	14:20	14:45	15:20	15:45	16:45	17:45	18:45	19:45	20:45	21:15			
<b>Orio</b>	<b>6:55</b>	<b>7:25</b>	<b>7:55</b>	<b>8:25</b>	<b>8:55</b>	<b>9:30</b>	<b>9:55</b>	<b>10:30</b>	<b>10:55</b>	<b>11:55</b>	<b>12:55</b>	<b>13:30</b>	<b>13:55</b>	<b>14:30</b>	<b>14:55</b>	<b>15:30</b>	<b>15:55</b>	<b>16:30</b>	<b>16:55</b>	<b>17:55</b>	<b>18:55</b>	<b>19:30</b>	<b>19:55</b>	<b>20:55</b>	<b>21:25</b>
Donostia	7:30	8:00	8:30	9:00	9:30	10:10	10:30	11:10	11:30	12:30	13:30	14:10	14:30	15:10	15:30	16:10	16:30	17:10	17:30	18:30	19:30	20:15	20:30	21:30	22:00

Lanegunetan, grisez dauden orduetako autobusak pasatzen dira Urbiletik.

**ASTEBURUETAN**

DONOSTIA-ZARAUTZ

Donostia	8:00	9:00	10:00	11:00	12:00	13:00	14:00	15:00	16:00	17:00	18:00	19:00	20:00	21:00	22:00	23:00
<b>Orio</b>	<b>8:35</b>	<b>9:35</b>	<b>10:35</b>	<b>11:35</b>	<b>12:35</b>	<b>13:35</b>	<b>14:35</b>	<b>15:35</b>	<b>16:35</b>	<b>17:35</b>	<b>18:35</b>	<b>19:35</b>	<b>20:35</b>	<b>21:35</b>	<b>22:35</b>	<b>23:05</b>
Zarautz	8:45	8:45	9:45	10:45	12:45	13:45	14:45	15:45	16:45	17:45	18:45	19:45	20:45	21:45	23:15	

ZARAUTZ-DONOSTIA

Zarautz	6:45	7:45	8:45	9:45	10:45	11:45	12:45	13:45	14:45	15:45	16:45	17:45	18:45	19:45	20:45	21:45
<b>Orio</b>	<b>6:55</b>	<b>7:55</b>	<b>8:55</b>	<b>9:55</b>	<b>10:55</b>	<b>11:55</b>	<b>12:55</b>	<b>13:55</b>	<b>14:55</b>	<b>15:55</b>	<b>16:55</b>	<b>17:55</b>	<b>18:55</b>	<b>19:55</b>	<b>20:55</b>	<b>21:55</b>
Donostia	7:30	8:40	9:40	10:40	11:40	12:40	13:40	14:40	15:40	16:40	17:40	18:40	19:40	20:40	21:40	22:40

Asteburuetan, autobus guztiak pasatzen dira Urbiletik. Grisez dauden orduak larunbatetako (lanegunak) zerbitzuei bakarrik dagozkie.

Aia eta Orio arteko autobus zerbitzua Landabusek darama. Zerbitzuei buruzko informazioa lortzeko zenbait bide daude: [www.landabus.com](http://www.landabus.com), Tf. 943 240114 sms-a 5280 zenbakira

#### 4. orrialdetik dator

tiaren beharrak aztertu eta bideak eraiki ditugu irtenbideak emateko. Oriotarrei udal funtzionamendu berri bat erakutsi nahi diegu, irekia eta gardena. Zubiak eraiki nahi ditugu pertsonatik pertsonara. ■ **Orioko Bildu.**

### Eskerrik asko Orioko herriari

Orioko EAJk eskerrak eman nahi dizkie oriotar guztiei haustekundeetan izandako parte-hartze handiagatik, eta gure alderdiari emandako babesagatik. 1.268 bozka lortu ditugu eta azken lau urteetan gehien igo den alderdia gara.

Eskerrak eman nahi dizkiegu, baita ere, orain arte gurekin batera herriaren alde lanean jardun diren guztiei.

Zuen babesarekin, datozen urteetan Orio hobetzen jarraitzea izango da gure udal ordezkarien helburu bakarra. Ho-

rretan jarriko ditugu gure indarrak ekainaren 11tik aurrera ere.

Mila esker berriro guregan konfiantza jartzeagatik. ■ **Orioko EAJ.**

### 'Orain' dugu aukera

Zorionak eman nahi dizkiegu oriotarrei. Zorionak, pasa berri ditugun hauteskunde hauetan erakutsitako partaidetzagatik. Aspaldiko urteetan ikusi den abstentzio mailarik baxuena izan da aurtengoa, eta oso datu esanguratsua delakoan gaude.

Mila esker Orain herri plataformaren alde egin duzuen guztioi. Eskerrik asko proiektu honetan sinesteagatik. Lau urte ditugu aurretik eta zuengandik jasotako babes guztiaren ordainetan, zintzo eta zentzuz jokatzeko konpromisoa hartzen dugu.

Aldaketa iritsi da. Oriotarrek bozka eman dute eta, emaitzak ikusita, gustura gaude, oso gustura. Izan ere, datozen lau

urteotan inork ez du gehiengo absolutua izango. Elkar ulertzera behartuta gaude guztioi eta horixe da egoerarik sanoena. Izaera edo pentsamolde desberdinetako oriotarrek, elkar entzun eta errespetatzen ikasi beharko dugu derrigorrez. Erabakiak guztion artean adostutakoak izatea da gure helburu nagusia, ea pixkanaka-pixkanaka herritarren artean ditugun harresiak botatzen ditugun.

Guk herritarren partaidetzan sinesten dugu eta beti bultzako dugu hori, zuek esan eta guk egin, Udala herriaren zerbitzura. ■ **Orain (Orioko Aukera Independentea)**

### Mila esker!

2011ko maiatzaren 22ko hauteskundeetan guregan konfiantza jarri duzuen guztiei eskerrik beroenak eman nahi dizkizuegu eta jakinarazi ilusioz eta gozoz aurre egingo diegulaherrian ditugun erronkei. ■ **Aiako EAJ.**

## » AGENDA

### Orio

#### Musika

■ Ekainaren 3an, Ahava taldearen eskutik Erdi Aroko musika mistiko kontzertua. Doan. 19:00etan, kultur etxean.

#### Informatika ikastaroak

■ Ekainaren 6tik 17ra, Internet+E-Administrazio ikastaroa, 16:00etatik 18:00etara, KZgunean.

■ Ekainaren 8an, *Writer* programari buruzko ikastaroa, 18:00etatik 20:00etara, KZgunean.

■ Ekainaren 9an, *Wriava* programari buruzko ikastaroa, 18:00etatik 20:00etara, KZgunean.

■ Ekainaren 14an, planifikazioak egiteko *Doodle*-i buruzko ikastaroa, 18:00etatik 20:00etara, KZgunean.

■ Ekainaren 17an, sare sozialei buruzko ikastaroa, 18:00etatik 20:00etara, KZgunean.

■ Ekainaren 20an eta 21ean, postontzi eta gordailu elektronikoiari buruzko ikastaroa, 18:00etatik 20:00etara, KZgunean.

■ Ekainaren 24an, posta elektronikoiari buruzko ikastaroa, 18:00etatik 20:00etara, KZgunean.

#### Film emanaldia

■ Ekainaren 7an, alzheimerri buruzko *Bicicleta, cuchara, manzana* dokumentalaren emanaldia. 15:30ean, kultur etxean.

#### Erakusketa

■ Ekainaren 17ra bitartean, auditoriumaren proiektuak ikusgai. 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara, kultur etxean.

#### Gaztetxea

■ Ekainaren 20a bitartean, gaztetxearen urteurreneko mural berrirako proposamenen eta orain arteko ekintzetako argazkien bilketa. Asanbladatara eraman edo bidali [gaztetxea.orio@gmail.com](mailto:gaztetxea.orio@gmail.com) helbidera.

### Aia

#### Musika

■ Ekainaren 5ean, Imuntzo eta Belokiren erromeria. *Ge-*

*zurra ez da Egia* diskoaren aurkezpena. 18:30etik 21:30era, Aristerrazun.

#### Herri kirolak

■ Ekainaren 19an, harrijasotze apustua. Zelai-k10 arroako zilindro zaharrarekin egindako 123 altxaldiko marka gaintitu beharko du. 12:00etan, Aiako dema-plazan.

#### Silo-bolak

■ Ekainaren 14an, silo-bolen bilketa. Zerbitzuari buruzko informazioa: 943 81 65 00 (Ur-kome)/660 04 97 51 (Igor).

#### Podologia

■ Ekainaren 18an, podologoaren kontsulta. Ordua hartzeko deitu 943 13 11 44 telefono zenbakira.

**agirresarobe**  
PROIEKTUAK, OBRAK ETA ERREFORMAK

OBRA BERRIEN PROIEKTUAK |  
ETXE ETA LOKALEN ERREFORMAK |  
FATXADEN ERABERRITZEAK |  
IGODAILDEN PROIEKTUAK |  
DREHID KOORDINAKUNTZA |  
INFORMEAK, OBRA LEGALIZAZIOAK, ... |

ITURRIBIDE II, 5. BULEGDA, ZARAITZ  
SORJA AGIRRESAROBÉ, ARKITEKTOA 943 731 722

ZABALIK! PROBATU EZAZU!

PIZZERIA

KALETA

ARRANTZALEBAILA, 10  
TELEFONOA: 943 24 89 46

# UDAN ERE

# MURGIL ZATEZ KIROLDEGIAN

## HAURRAK

Igeriketa

Capoeira

Jolasak

Tenisa

Pintura

Saskibaloia

Padela

Dantza

Surfa

Patinak

Futbola

Arrauna

Sofbola

BTT - eskalada...

Waterpolo - Uretako jokoak...

## HELDUAK

Aerobik

Spinning

Edadetuen gimnasia

Patinak

Pilates

Padela